



**Barrikabasoko itsasertza babesteko Lurralde Plan Sektoriala aldatzea onartu du Jaurlaritzak.** ▶8

**Aritz Mugerza Horas artista deustuarrak irabazi du Mendibile Jauregiko horma-irudiaren lehiaketa; bere lanaz jardun dugu beragaz.** ▶15



# hiruka

Uribe Kostako astekaria



**52. zenbakia**

2016ko  
**martxoaren 10etik**  
**martxoaren 16ra arte**

## Emakumeen aldarrikapenak, iruditan

**Argazki-albumean jaso ditugu** martxoaren 8aren inguruan egindako hainbat ekitaldi. Akorduan izan, jarduera gehiago egongo direla hurrengo egunotan. ▶10-11



© BARRIKA PIRAGUA TALDEA

## «Emakumeen borrokaren isla da Palestinaren historia»



**Mar Gijon Mendigutia** Biladi elkarteko kideak idatzi du *Historia del movimiento de las mujeres en Palestina* liburua; Txalaparta argitaletxeak plazaratu du.

*Palestinako lurralde okupatuetako gizarte-erakundeetan eta giza eskubideen aldeko borrokan emakume palestinarren eginkizuna* izenburuko egitasmoaren baitan egin du ikerketa orain dela lau Getxon bizi den

Marta Gijonek. Fernando Sancho Martinez Biladi elkarteko proiektuen koordinatzaileak lagundu dio lan horretan, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak diruz bultzatu du proiektua. ▶16-17

SAKONEAN URIBE KOSTA

## Bederatziko futbola, joko hobetzeko

**Bizkaiko emakumezkoen haur-futbolak** bederatziko futbolari ekin zion otsailean.

Neskatoei trebeziak hobeto lantzen lantzen die sistema berriak. Leioako Emakumeak, Algortako Bizkerreko talde bi, eta Barakaldoko Pauldarrak elkarteko beste bi dabilta horretan. Aurretik ikerketa bi egin dituzte. ▶22-23

**Euskara biziberritzeko plana** 2017ra arte luzatuko du Erandioko Udalak; plangintza pasa den urtean amaitzekoa zen. ▶5

**Uribe Ospitalea Plataforma** aurkeztu dute. Urduliz Rurala eta SUSAN elkarteek osatzen dute, eta eurakaz egon gara. ▶7

**Herri Unibertsitatea egingo** dute campusean hilaren 14tik 16ra, «bestelako hezkuntza-eredu baten alde». ▶9

**Uribe Kostako Bertsolari Txapelketaren** bigarren kanporaketa jokatuko dute zapatuan, Algortan, beste 12 bertsolarik. ▶14

# Obrak hasteko prest

**Getxoko Ibarbengoa metro-geltokiaren** ondoko txandakako aparkalekua eraikitze obrak uda aldean hastea aurreikusi ei du Eusko Jaurlaritzak.



Getxoko (Andra Mari) Ibarbengoa metro-geltokiak ia sei urte eman ditu itxita.

**B**izkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) uda honetan hasiko ei ditu Getxoko Ibarbengoa metro-geltokiaren alboko aparkalekua egiteko lanak, Deia egunkariak zabaldu duenaren arabera. Hala, aurreikusi dutenez, estalitako 304 aparkaleku hartuko ditu azpiegitura berriak; 2017ko uda aldean zabalduko da metro-geltokia, ia sei urte itxita egon ostean. Obrak iaz hastea aurreikusi bazuten ere, Eusko Jaurlaritzak datozen egunetan ipiniko du martxan lan horiek egiteko lehiaketa; ondoren, ETS Euskal Trenbide Sareak eta BGPak egingo dituzte lanok. Horietarako, partzuergoak 5,8 milioi euroko inbertsioa egingo du. Gune hori Tosu landa izezagaz da ezaguna, eta hantxe dago proiektuaren kontrako erresistentzia. Bertako gazteen arabera, txandakako aparkalekuaren kontra egoteko «arra-zoiak» egon badaude. ◀

## Emakumeen aldeko aldarriak entzungo dira egunotan ere

**M**artxoak 8 igaro da daborduko, Meta emakume langileen aldarrien oihartzuna udalerriko bazter askotara heldu da, Getxoko Udalaren eta udalerriko eragile feministek antolatutako hamaika jarduerari eta ekimeni esker. Hala ere, beste hainbat jardueratan parte hartzeko aukera dago oraindino ere datozen egunotan. Hilaren 10ean, egunean, «Emakume errefuxiatuak: indarkeriak jatorrian, ibilbidean eta helmugan» berbaldia eskainiko du Leire Lasa CEAREko kideak, 18:15ean, Itzurbaltzetako elizan. Egun berean, Itxaro Borda idazleak eta Itsaso Gutierrez musikariak *Zure hatzaren ez galtzeko* saioa eskainiko dute, euskaraz, 20:00etan, Azebarri kultur elkartearen. Azkenik, hilaren 17an, egunean, 16 urtetik gorako neska-mutilei zuzendutako *En la boca del lobo* ipuina kontatuko dute Algortako Villamonte kultur etxean, 19:00etan. ◀

## Begoñako galeriak bisitatzeko aukera berriak, urrira arte

**M**artxoaren 24tik aurrera Begoñako Galeriak bisitatzeko aukera egongo da berriro ere. Izan ere, egun horretatik aurrera bisita gidatuen txanda berriari hasiera emango diote, ibilbide berri batez. Hala, iaz legez, gura duenak alde aurretik izena eman beharko du, Getxoko Udalaren webgunearen bidez edo Turismo Bulegora deituta. Bisitaldiak EHUK eta

Udalak antolatzen dituzte; doakoak izango dira, eta gehienez 20 pertsonako taldeetan egingo dira, martitzenetik domekara, euskaraz zein gaztelaniaz. Bisitak urrira arte egin ahal izango dira. Proiektu horretan parte hartzen duten ikerketa-taldeek galerietan aurkitu dituzten arazoak berri izango dute bisitariek. ◀

info+: [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) / 944 910 800



Rosabel Argote eta Elena Coria Getxoko zinegotzia, aurkezpenean. © GETXOKO UDALA

## Zurrumurru arrazisten kontra, herritar kritikoak «behar dira»

**C**EAR-Euskadik «Ez hadi endreda zurrumurru arrazista eta xenofoboekin» kanpaina aurkeztu du Getxon, Udalagaz elkarlanean. CEAR 2008an hasi zen zeregin horretan behar egiten, zurrumurru arrazista eta xenofoboak areagotzen zebiltzala egiaztatu zutenean. Zazpi urte geroago, 2015ean, pertsona errefuxiatuen krisiagaz, zurrumurru horiek berriro areagotzen hasi direla nabarmendu dute. Hala, horri buelta emateko, «Ez hadi endreda zurrumurru arrazista eta xenofoboekin» kanpaina ipini dute martxan. Ekimen horren baitan, gaztelaniazko bideo-dokumental laburra argitaratu dute;

horretan, Espainiar Estatuko hainbat kazetari ezagunek zurrumurru xenofoboetan ez endredatzeko eskatzen diete herritarrei. Rosabel Argote CEAR-Euskadiko bozeramaileak azaldu duenez, kanpaina EAEn abian jarri nahi dute. Hala, datorren urtean, 2017an, EAeko kazetariakaz kanpaina berri bat egitea aurreikusi dute. Argotek azaldu duenez, zurrumurruek «oso erraz» hedatzen dira; «biralak dira». Hala, horiei aurre egiteko herritar kritikoak sortu beharra dagoela uste du; horretarako abiatu dute kanpaina berria, jendea arrazismoaren kontra ahalduntzeko. ◀

info+: [www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)



**Gobela ibaiko ertzen estaldura-lanak** hasi dituzte, Avanzadatik Carmen kaleko pasabidera arteko tartean. Daborduko, horma berriak ezarri dituzte ibaian, zutoin-oholez eginda. Lanok amaitzean, Avanzada eta Leioa Hiribideko zubirainoko tartea urbanizatzen jarraituko dute.

# Erabateko euskal esperientziak

**Euskal kostaldea belaontziz** ezagutzea aukera genezakeen, baina, gure uretan arrantza egin barik, barrualderago jo eta, esperientzia erakargarri eta desberdin bi gomendatuko dizkizuegu, barbarako, datorren oporraldirako...



Durango eta Elorrio artean, Muntzaratz auzoan (Abadiño), Mendiola eta Sagastarako saihebidia hartuta.

## Artzain egun batez

**Alluitz Natura baserria**, Atxarte gaztandegitik hur, Abadiñon dago, Urkiolako natur parkeko lurretan.

**A**rduradunek azpimarratu dutenez, «oso garrantzitsua da jakinaraztea zein asmo-gaz egin gura den bisita, kide-kopurua eta adinak»; horri egokitu-tako eskaintza prestatuko dute-eta.

**Zer eskainiko digu Alluitzen egun bateko Artzain esperientziak?**

Ez da kontu bera Idiazabal jatorri-deiturako gaztaren inguruan dena jakin gura duen aditu-talde bat izatea ala astialdian datorren lagunarte bat; ikasle-talde bat ala familia bat; umeek eta helduek osatutakoa... Bakoitzak bere esperientzia izan dezake, horregatik garrantzitsua da guk aurretik jakitea hainbat datu. Barbarako, ume eta nagusien taldea izanda, helduek mamia egiten ikasi bitartean, horrek ez aspertzeko umeentzat badaukagu artile-ikastaro bat: koloretako hodeiak egiteko, artile naturalezkoak; artilea iragaziko dute xaboiakaz, gero margo bihurtu... Olgetan ederto pasatzen dute, gauza gozo-goza eta kolore-

tsuak esku artean. Helduek Idiazabal jatorri-deiturako gazta egiteko sarre-ikastaroa dute: mamia zelan egin modu tradizionalan, antzinako tresnakaz, diotenez neolitikokoan legez. Gaztak zapore ezberdina dauka: altzairuzko tresnakaz ala egurrezkoakaz eginez gero; eta esnea zelan berotu, harriak erabiliz... Gero, artaldea batuko dugu, Harri gure txakurraren laguntzagaz; kortan, bildotsei biberioia eman, ardiak jetzi... hainbatek lortu ere egingo du! Kar-kar. Sasoia bada (maiatz-ekaina), ardiak mutiltzeko aukera ere badago.

**Beste hainbat ikastaro dituzue, ezta?**

Asko! Talo-tailerra, bertoko landare eta sendabelarrakaz xaboi egitekoa, plastilina ekologikoarena, ortu bertikalena, gatzatua eta gazta dastatzekoa... Inguru ederrotan ibilaldi bat ere egin dezakete; ordulariari jaramonik egin barik; paseatu, bazkaldu (jaketxe-eskaintza zabala dago!), Argiñetako nekropolia ezagutu... Inguruko ekonomia dibertsifikatzea ere badugulako helburu.



Gomendioa: argi-orduak kontuan izatea; dorrera igotzeko eta beirateen kolorez gozatzeko.

## Gasteizko katedrala

**Santa Maria tenplu gotikoak** 15 urte egin ditu berritze-lanetan: traba barik, egundoko aukera da.

**G**asteiz erdian, errai eta bihotz agerian, iragan, orainaldi zein etorkizuneko altxor erakusle da Santa Maria.

**Bisita tenplu gotiko bat ezagutzea baino gehiago da, ezta?**

Esperientzia oso berezia da. Berritze-lanek bidea ematen dute eraikuntza ikuspuntu arkitektonikotik eta arkeologikotik ezagutzeko. Hiriko historiaren parte da: defentsarako dorreak dauzka, erronda ibilbidea... Kanpotik gotorleku itxurakoa; barrutik, katedral gotiko batena. Triforioa, goiko galeria, ikusteko aukera dago; pasabideetan ibiltzea eta bistak liluragarriak dira. Kanpandorrera ere igo gaitzke; talaia ederra, Gasteiz eta inguruko ikuspegi zoragarriaz gozatzeko. Kriptan, arkeologia-lanak egin dituzte; museo bat egiten ari dira, poliki; hasierako herriaren aztarna garrantzitsuak aurkitu dituzte bertan: harresiaren zati bat, aurreko eliza batenak... Mundu arkitektonikoa, arkeologikoa eta historikoa ezagutzeko aukera itzela, beraz.

**Orduan, desabantaila barik, aukera hobeezina dira lanak?**

Duda barik! Gainera, garai desberdinetan etorrita ere, kontu berriak entzuteko eta ikusteko aukera dute bisitariek.

**Bisita ezberdinak egin daitezke, ezta?**

Gidatuak dira guztiak, lanengatik. Denak daude gurgil-aulkietarako edo mugikortasun urriko pertsonentzat egokitu-tuta. Hiru aukera daude: katedrala (1h), katedrala eta kanpandorra (1:15h) edo katedrala eta harresia (1:30h), Gasteiz eta Alde Zaharraren historia osoa ezagutzeko aukera onena.

**Kent Follett aipatu barik ezin amaitu.**

2002an katedral gotikoen hitzaldi batera etorri zen idazle ingelesa, eta harritu egin zen zimenduak hondeatuta eta agerian ikustean. *World Without End* libururako inspiraziotzat hartu zuen. Askok uste du *The Pillars of the Earth* ezagunerako izan zela, baina lan horren bigarren zatia, aurretik aipatutakoari lotuta dago Santa Maria.

**Bisitak, urte osoan, egunero.** Neguan, 10:00etan hasita; eguna luzatzean, 16:00etan ere bai. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta katalanez.

**Bisitak, egunero.** 10:30etik aurrera. Hiru mota. Euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez.

Getxo

# Kuadrillen harremanak berreskuratzeko jaioa

**Harremanak indartu eta** bestelako aisialdi-eredu bat eskaini gura du Algortako Gazteak talde berriak.

**I**a urtebeteko hausnarketa eta lanaren ondoren, heldu da eguna Algortako Gazteak talde sortu berriari ondoetorria egiteko. Iazko uda baino lehen desegin zuten Algortako gazte asanblada, eta «horrek utzitako hutsuneagaz zer egiteko» asmoz, hainbat gazte bilera bat egin zuten San Nikolas plazan. Elkartze horrek herriko gazteek dituzten behar bi azaleratu zituen: astialdi-eredu alternatiboa, eta kuadrillen arteko harremana. Udako jaiakaz batera, behar horiei erantzuteko ahaleginak egin zituzten; gerora, «indartu zirenak Indabadagaz eta Gabon Zaharragaz». Horietan lortutako emaitza «arrakastatsuek» prozesuaren beharra indartu zuen. Hala, abendutik hona proiektuari forma eman eta helburuak zehaztu dituzte udalerriko hainbat gazte. Horrenbestez, hila-



Algortako Gazteak taldeak bere proiektua aurkeztuko du hilaren 12an San Nikolas plazan.

ren 12an, zapatuan, kuadrillen arteko «amildegia apurtzeko» eta «aisialdi-eskaintzari beste aukera bat emateko» egitasmoa ezagutaraziko dute San Nikolas plazan, 11:00etatik aurrera. Gazteek azaldu dutenez, «edozein gazte parte har dezake proiektuan; talde zabala da, irekia, askotarikoa, parte hartzailea eta gardena». Hori dela-eta, jendea erakarri guran, Algortako Gazteak taldearen nondik norakoak azalduko

dituzte topaketa horietan, «zer ari garen prestatzen helarazi nahi diegu gazteei, guztiak eskaintza guztiak ezagutzeari, eta, gura badute, horietan parte hartzea». Izan ere, diotenez, «gazteak gure mugimenduko parte izatea gura dugu; guk ez dugu zerbitzu bat eskainiko eurek erabili dezaten soilik; horren parte izatea eta sentitzea gura dugu». Halaber, edozein gazte horretan «bere espazioa» izatea dute helburu. ◀

## Gazteei begirako tailerretan izena emateko epea zabaldu du Udalak

**M**artxoan, apirilean eta maiatzean izango diren lantegietan izena emateko epea zabaldu du Getxoko Udalak. Oraingo honetan, nobedade bezala, brikolaje-, iturgintza- eta elektrizitate-moduluak eskainiko ditu. Hirurak 16 urtetik 25 urtera bitarteko neska-mutilei zuzenduta

egongo dira, eta apirilaren 2an, 27an eta maiatzaren 7an hasiko dira, hurrenez hurren. Eskaintza beste tailer bi gehiagogaz osatuko da: Bizirauteko sukaldaritza (ohikoa, urteroko eskaintzan), 11 urtetik 17 urtera bitartekoentzat, eta apirilaren 4an hasiko dena; eta Elikagaiak manipulatzeko ikastaroa, 18

urtetik 30 urtera bitartekoentzat, martxoaren 19an, saio bakarrean egingo dena. Guztiak autonomia lantzerantz bideratuta daude, eta alde aurretik izena eman beharra dago. Urritasunen bat dutenek beharrezko laguntza izango dute, behar izanez gero. ◀

gaztebulegoa@getxo.eus / 944 660 353

**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak  
Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34  
Gura izanez gero, etxera erango dizugu egunkaria!

**txakoli mota ganeTx**  
txakolina  
Leioa-Unbe errepidea 34  
(Akarlanda parkea) Golerri-Erandio  
94 467 00 07 · www.txakolimotagane.com

**saiazgetaria**  
HOTELA  
Roke Deuna 25  
Getaria  
T. 943.140.143  
www.siazgetaria.com



Tiocfaidh ár lá

OIER ITURRALDE FERNANDEZ  
«ATANO»  
EH Bildu

Ipotx zaharrak, pago sendoak eta pinu ximelak

**B**azen behin ipotxen herri bat. Denetariko ipotxak bizi ziren han: alaiak, langileak, gazteak, umeak, euskaldunak, boliviarrak, errumaniarrak nahiz gaztelarrak. Baita ipotx zaharrak ere. Guztiak zuhaitzetan bizi ziren, enborretan egindako kabi goxoetan: pagoetan bizi ziren, haritzetan, sagarrondoetan nahiz gaztainondoetan.

Ipotxek abestea maite zuten, bateria edo gitarra jotzea, margolanetan edo olerkigintzan jardutea... Hain ziren kulturzaleak, gure ipotxak. Herria hobetzeko batzarretan ere, maiz biltzen ziren herriko plazan. Ohi legez, ipotxik zaharrenek begirune eta arreta nagusia bereganatzen zuten, jakinduriaren izenean.

Ipotxen herrian, baina, urte luzez ezaguna zuten mamu ilun bat zegoen. Mamu hark gustuko ez zituzten gauzak egiten zizkien ipotxei: huskeriengatik isunak ezarri, kaletik bota, gazteek okupaturiko zuhaitzak eraitsi...

Egun batez mamu hark, dirugose aseezinak bultzaturik, herriko zaharrak biltzen zituen pago ederra botatzea erabaki zuen; eta limurkeria handiz, herriko plazaren erdian landatutako pinu erraldoi batean kokatzea derrihortu zituen. Ez nolana, gainera: pinuan gora egin eta adarrik altuenetako batera eraman zituen herriko zaharrak, kaletik urrun, euren pagoaren patxada ebatsiz.

Ergelkeria hura ikusirik, herriko ipotxak antolatzen hasi ziren; herriko zaharrek euren pagoa behar zuten, ez erabilgaitz bihurtuko zitzaizen pinu ximel hura. Gainera mamuak pagoa moztuko zien, orubean pinu berriak landatuz espekulazioan sakontzeko. Ipotxek hitz egin zuten: zaharrek pagoan nahi zuten, eta gazteek arbola hutsak alokatuko zituzten, merke. Eta hala bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Erromoko plazan. ◀

## Erudio

# Gaur egungo euskara biziberritzeko plana 2017ra arte luzatuko dute

Erudioko Udalak udalerriko *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2013-2015* luzatu du, 2017ko abendura arte. Erabakia otsailaren 25eko Udabatzan hartu zuten; aurretik oniritzia eman zuen Hezkuntza, Musika Eskola eta Euskara Arloko Informazio Batzordeak. Proposamena Erudioko Udaleko Euskara Zerbitzuak egin zuen, iaz amaituta egon behar zuen plana luzatzeaz gainera, berori Eusko Legebiltzarrak 2013an onartutako *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)* dokumentura moldatzeko. Erabakia



onartu arren, ez da irmoa izango hila-betez jendaurrean erakutsi arte eta bazilko alegazioak, erreklamazioak eta iradokizunak ebatzi arte. Erudioko Euskara Sustatzeko Ekintza Planak be-

deratzi arlo hartzen ditu, hiru multzotan. Euskararen jabeak zurtatze-ko, honako bideak sendotuko dituzte: familia bidezko transmisioa, irakaskuntza, eta euskalduntzea eta alfabetatzea. Euskararen erabilera sustatzeko, ordea, aisia eta kirola izango dira tresnak. Azkenik, euskararen elikadura sustatzeko indartuko dira liburugintza, kulturgintza, hedabideak, sentsibilizazioa eta motibazioa eta bestelako arloak. Legegintzaldi Planaren arabera, 2018ko udarako abiatuko luke Erudio hurrengo ESEP. ◀

## Bizkaiko nazioarteko lankidetzaren artean, 26.000 euro banatuko ditu Udalak

Bizkaiko Garapenerako Gobernuaren Kanpoko Erakundeek (GGKE), barikura arte, hilak 11, izango dute epea, Erudioko Udaleko Nazioarteko Lankidetzarako Sailari diru-laguntzen bat eskatzeko. Proiektuak norabide bitan aurkez daitezke: Hegoaldeko herrialdeetan lankidetzaren egitasmoak sustatzeko, eta Erudio sentiberatze-kampainak gauzatzeko. GGKE bakoitzak bina egitasmo aurkez ditzake ildo bakoitzeko. Denera, Udalak 26.000 euro banatuko ditu aurkeztuko diren proiektuen artean. ◀

## Behargintzako buletina Emakunden salatu du EH Bilduk

Erudioko EH Bilduk udalerriko Behargintzaren buletina salatu du Emakunde emakumearen euskal erakundearen aurrean. Ana Crespo zinegotziaren ustez, Behargintzak kaleratutako azken zenbakiko azalak «ohiko estereotipoak eta rol-banaketa erreproduzitzen ditu». Crespok azaldu duenez, argazkian 24 pertsona ageri dira: 21 gizonetakoak, eta 3 emakumetakoak. Gizon denek lanerako lohizartzeak jantzita dituzte; «hiru emakumeak garbitzaile-uniformeak» ageri dira. EH Bilduren esanetan, kontuaren berri eman zioten Udal Gobernuari buletina erretiratu zezan, baina «egora ez da zuzendu». Horregatik jo dute Emakundera.

Bestalde, martxoaren 8ko jarduerak aurrera jarraitzen dute Erudio. Besteak beste, datorren eguaztenean, hilak 16, Erudioko emakume etorkinen gaineko ikerketa aurkeztuko du Berdintasun Zerbitzuak Astrabuduko anbulatorio zaharrea, 18:30ean. ◀

## KANPOMARTXO 2016

MARTXOAREN 20a, domeka

# MARTIARTUN ERANDIO

**11:00. Musika Eskolako trikitilariak**

**12:00. Dantzak: Goi-Alde, Trabudu eta Uztargi**

**13:00. Mendibaiarte**

**13:30. Bertsolariak: Xabier Amuriza eta Oihana Bartra**

**15:00. Herri bazkaria**

**16:00. Roberto Etxebarria eta Kantagunea**

**17:00. Koadrilen arteko herri kirolak**

**17:00. Umeentzako erromeria: "Mugi-Mugi", Sudurkeria taldea**

**18:00. Dantzaldia "Luhartz" taldearekin**

### BUS

**Zerbitzu bereziak!**

**Goizean**

**EHU - MARTIARTUDORREA**  
10:45etik 14:45era, 20 minuturik behin

**MARTIARTUDORREA - EHU**  
10:55etik 14:35era, 20 minuturik behin

**ASTRABUDUA - Elexalde - Goierrri eskola - MARTIARTUDORREA**  
10:45etik 14:45era, orduro

**MARTIARTUDORREA - Goierrri eskola - Elexalde - ASTRABUDUA**  
11:15etik 14:15era, orduro

**... eta gainera, BERBOTSUSA!**

**ALTZAGA - ASTRABUDUA - EHU**

**berbots** 10:15etik 14:25era  
50 minuturik behin, goizez  
Berbotsusaren irteera ordutegiak:  
10:15 / 11:05 / 11:55  
12:45 / 13:35 / 14:25

**Arratsaldean**

**MARTIARTUDORREA - Goierrri eskola - Elexalde - ALTZAGA**  
16:30etik 21:30era, orduro

**ALTZAGA - Elexalde - Goierrri eskola - MARTIARTUDORREA**  
17:00, 18:00 eta 19:00etan

**MARTIARTUDORREA - Astrabudua - ALTZAGA**  
16:15etik 21:15era, ordu eta erdirik behin

**ALTZAGA - Astrabudua - MARTIARTUDORREA**  
17:00etan eta 18:30ean

**Parking erraldoia EHU!**

**AUTORIK EZ!! ERABILI ERANDIOBUSA**

**... eta egunean zehar: Umeentzako puzgarriak, arku jaurtiketa, jokoak, sorpresak... Txosna, musika, taloa.**

**Antolatzailea:**  
**BERBOTS**  
Erudioko Euskaltzaleen Topagunea

**Laguntzaileak:**  
Goi-Alde, Trabudu eta Uztargi dantza taldeak  
Goiherriko Jai Batzordea eta sokatira taldea  
Gazte Asanblada  
Kantagunea  
Musika Eskolako trikitilari eta pandero joleak

**ALBE**  
Ikastetxeetako guraso elkarteak  
Auzokide elkarteak  
Mendibaiarte abesbatza  
... eta beste hainbat

UPV EHU

**GARABIAK**  
TATTOO & DISINUA

Babesleak:  
Erudio Elizateko Udala

**E!**  
Erudio

# GARABIAK

1967

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA  
94 460 70 84



Krisalida

JOXE  
BELMONTE F. DE LARRINO A  
Idazlea

## Harategia ere pentsatzeko leku ona denean

Harategian nengoen lehen-go egunean nire txandaren zain, frijitzeko okela noiz erosiko, etxe-ko berora lehenbailehen bueltatzeko. Ez oso eroso, egin beharrekoa, ez besterik, hor egotea denbora galtzea balitz bezala. Okela xerrak baino gehiago atera nuen ordea.

Bertan egindako behaketa batek eraman ninduen hausnarketa interesgarri batera. Mostradoreak 90 graduko angelua osatzen zuen; alde batean gizonak zeuden; beste aldean, emakumeak; ni, bertizean, gizonen eremua mugatuz. Antzinako elizki-zunez gogoratu nintzen, mezatan gizonak eta emakumeak bereizita zeudenean.

Gizonak, gazteak; emakumeak, adinean sartuta. Adinak ez ezik, jarrerak, eskatzeko moduak eta beste hainbat elementuk zerkartzaten diferentziak. Gizonak apal eskatzen zuten, herabe, ahopeka ia, eta hitz bitan, erretorikarik gabe. Emakumeek, beste aldean, eremuaren jabe, erretorika ezagun bezain alferrekoa erabiltzen zuten: ona dago? Ona dagoena emadazu! Eta bestelako lelo ezagunak, urte askotan zehar mamitu direnak. Ozenki, gizonen eskabide xumearen aldean. Eskakizun ondo zehaztuak, «nora zoaz? Gehiegi da! Kendu apur bat», dendariari esanak. Gizonentzat dena zegoen ondo, kilo erditik berrehun gramo gehiago jarrita ere. Gizonak isilean zihozten harategitik irteten, inor enteratu gabe. Emakumeek, ordea, «agur, polite», edota, perla barik ere, agur ozen batez.

Kasualitatea izanda ere, esan-guratsua: gizonak emakumeak beste ziren harategian, eta gazteagoak. Gauza ona, joerak aldatzen ari dira; berdintasunaren aldeko pausoa. Batzuen eta besteen ikaskuntza soziala, agerian, herentzia genetiko bezain itsatsita. Hori ez hain ona. Txanda etorri zitzaidan. Apal eskatu nuen. ◀

## Leioa



Leku-eskaera gehiago izatekotan, Mendibile ikastetxea zena erabil dezake Jaurlaritzak.

# Leioan ikasteko, toki nahikoa dago

Esusko Jaurlaritzari eta Udalarizuzendu zaizkie hainbat guraso, Leioako umeek bertoko zentroetan ikasteko lekua edukitzea bermatzea eskatuz; sinadurak batzen dabilta aita-amak. Agintari leioaztarrek aitortu dutenez, aurretik matrikulatzeko epea amaituta, «Altzaga ikastolan, lau eskaera kanpoan geratu dira; eta Txomin Aresti eskolan, bederatzi». Hala ere, lekuak banatzeko eskumena Jaurlaritzarena dela argi utzi gura izan du Udalak. Adierazi duenez, «kontuan hartu beharra dago le-

ku-banaketa hori gurasoek egindako lehen aukerari dagokiola, eta gainera, oraindik ere behin-behinekoa dela. Ondoren, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak bigarren eta hirugarren aukerak hartuko ditu kontuan, eta une horretan esleituko zaio ume bakoitzari tokia. Eskubide hori erabat bermatuta dago, inolako zalantzarik gabe».

Halaber, sor litezkeen zalantzak argitzeko eta aita-amak lasaitzeko, Hezkuntza Saileko ordezkariaz harremanetan ipini da Mari Carmen Urbietak alkatea. ◀

## Gazteluetako sexu-abusuaren salaketa sinesgarritzat jo dute

Gaztelueta ikastetxean sexu-erasoak izan ote ziren ikertzen dabilzan adituek egindako txostenetan irakur daitekeenez, biktimaren egoera psikikoak eta kontaketa bateragarriak dira salatu dituen sexu-gehiegikeriak eta trauma osteko estres egoeragaz. Psikologo bik eta beste auzitegi-mediku bik osatu dute txostena,

eta azaldu dute bat egin dezaketela kontaketa eta salatutako sexu-gehiegikeriek. Hala, baztertu egin dute mutilak gezurrezko lekukotza emateko presioak jaso izana. Ikasleak 12 urte zituen izan ziren ustezko gertaerak; gaur egun, 19 urte dauzka. Ustezko erasotzailea ikastetxe erlijiosoko irakaslea zen garai hartan. ◀

## Emakumeen Eguna aldarrikatzeko beste hainbat ekimen

Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko ekitaldiak hurrengo hileraren arte luzatuko dira. Hala, apirilaren 3ra arte, aukera egongo da zortzi emakume osatutako *Topaketak* erakusketa ikusteko, Kultur Leioan. Eguen honetan, martxoak 10, berriz, *Servicio domestico* antzezlanaren taularatuko du Kafe Huts taldeak, 19:00etan, aipatutako kultur aretoko entzungelan; gonbidapenak hainbat lekutan har daitezke. Barikuan, martxoak 11, ostera, *El florido pensil niñas* lana eskainiko du Tanttaka antzerki-taldeak. Saioa 20:30ean izango da, Kultur Leioan; eta sarre-  
rak 15 euroan egongo dira. Amaitzeko, martxoaren 18an, barikua, kontzertua emango du Dom La Nena ezizenagaz ezaguna den Dominique Pinto kantari eta biolontxelista brasildarrak. Emanaldia 21:00etan izango da Kultur Leioan; sarre-  
rak 8 euroan daude. ◀

## Sabino Arana kaleari buruzko hitzaldiaren eguna aurreratu dute

Orain dela bizpahiru aste, Sabino Arana kalearen etorkizuna erabakitzekeko prozesu parte-hartzailea martxan ipini zuen Leioako EH Bilduk; kalea oinezkoentzat egokituz berritzeko proposamena dute ezkertiarrek. Bada, martxoaren 17rako iragarritako berbal-  
dia egun bi lehenago izango dela jakinarazi dute koalizio abertzaleko arduradunek; martitzenean, martxoak 15, egingo dute, 19:00etan, Sakoneta kiroldegian. Arkitekto bat, dendari bat eta oinezkoentzako leku batean bizi den pertsona bat izango dira hizlariak. Leioako EH Bilduk eztabaida «baketsu eta parte-hartzailea» bultzatu gura du, «Sabino Aranari eman diezaiogun erabilerei buruz». ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

**BETIKO IKASTOLA**

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA  
94 464 23 64/94 464 33 07  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

Ikastolen Elkartea

**DIDAK HAMILTON**

**IDIOMAS**

Ingelesa · Frantsesa · Alemaniera

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6/Iberre 9 · 48600 SOPELA  
94 676 30 12  
info@didakhamilton.com

## Sopela

# «Txarto egindako gauzak zuzendu behar dituzte»



Ospitalerako sarbideen inguruan erakundeek duten «deskoordinazioa» salatu dute, besteak beste.

**Urduliz Rurala eta SUSAN** elkarteek Uribe Ospitalea Plataforma sortu dute, ospitalearen ondorio kaltegarriak txikiagotzeko eta onuragarriak bultzatzeko asmoz.

## IKER RINCON MORENO ▶

**U**rdulizko ospitaleak ekarriko dituen ondorioez kezkatuta, Uribe Ospitalea Plataforma aurkeztu berri dute, Urduliz Rurala eta SUSAN elkarteek osatutakoa. SUSAN sinadurak batzen hasi da, gaia Bizkaiko Foru Aldundira eroateko helburuagaz.

**Zer asmogaz sortu duzue plataforma?** Labur esateko, ospitaleak ekarriko dituen ondorio txarrak gutxitzeko eta onak indartzeko asmoarekin sortu dugu Uribe Ospitalea Plataforma. Era berean, Urdulizko ospitale berriaren irekierarekin kezkatuta dauden biztanleen bilgune izan nahi dugu.

**Nortzuek osatzen duzue taldea?** Urduliz Rurala eta Sopelako SUSAN elkarteek sortu genuen plataforma. Sopelako eta Urdulizko udaletako alderdi politikoek erantzun desberdinak eman zizkiguten: batzuek ez ziguten hitza eman, eta beste batzuek gure proiektuan sinistu zuten, EH Bilduk eta DB-TUK, batez ere. Eurak laguntza eskaintzen ari dira gaur egun, bileretan ekarpen baliotsuak egiten edo koordinazio-lanak egiten. Hala ere, argi utzi

behar dugu gure izaera apolitikoa dela; bestelako alderdiak ez daude gurekin eurek ez dutelako nahi izan.

## Hainbat galdera mahaigaineratu dituzue ospitale horren inguruan...

Bai; galderak dagozkien erakundeetuz zuzendu dizkiegu. Udalen erantzunak oso eskasak izan dira; Plentzia, Bakio eta Lemoizko udaletako erantzunak baikorak eta lagungarriak izan ziren. Bestalde, Metro Bilbaok eta Bizkaibusek esan zuten ez zutela aurreikusi maiztasunak areagotzea. Halaber, Arartekoari bitartekotza-lanak egitea eskatu diogu, baina ez dugu erantzunik jaso.

## Zein da plataformaren helburua?

Orokorrean, ospitalearen ondorio kaltegarriak txikiagotzea eta onuragarriak bultzatzea. Halaber, gaia gizarteratzea, eta auzokideen kezka eta proposamenak batu nahi ditugu.

## Eskualdean mota horretako ospitalearen beharra ikusten duzue?

Guk ez dugu bestelako aukerarik aurkeztu; ez da gure lana. Argi ikusten dugu gauza asko ez direla ondo egin, eta txarto egindakoak zuzentzea eskatzen dugu, ongizatearen izenean. ◀

Elkarrizketa osoa ikusteko: HIRUKA.EUS

# Domekara arte iraungo du Emakumeen Asteak

**E**makume Langileen Nazioarteko Egunari lotutako ekitaldiak hila- ren 5ean hasi baziren, oraindino ere badago zer egiterik Sopelan. Izan ere, ekimenez betetako Emakumeen Astea antolatu dute; hilaren 13ra arte, domeka, iraungo du. Kontuak horrela, Sopelako Udalak, Berdintasun Sailak eta Itzartu elkarteak prestatutako hainbat jarduera egongo dira egunotan, sopeloztar guztiei zuzenduta. Ekimen horiek guztiek helburu bera daukate: emakume eta gizonen arteko eskubide-berdintasuna aldarrikatzea.

Arduradunek azaldu dutenez, antolatutako jarduera denen artean, nabarmentzekoa da *Sindrome de Estocolmo* izeneko talk show «ikusgarri eta berritzailea». Saioa hilaren 13an izango da, domekan, Kurtzio kultur etxean. Bertan, komunikazio, arte eta

musika eremuko bost emakumeren arteko topaketa «harrigarria» egingo dute; Beatriz Catalan, Eguzki Zubia, Reyes Prados, Ainara Legardon eta Alicia San Juan izango dira protagonista. Hitzordua 19:00etan ipini dute, eta sarrera 3 euroan eskuratu ahal izango da. Bestalde, hilaren 10ean, eguena, Ramiro Pinillari gorazarre egiteko pintura-lehiaketaren sariak banatuko dituzte, Kurtzio kultur etxean, 18:00etan. Hurrengo egunean, barikuan, Maria Berasartek fado musika-emanaldia eskainiko du, Kurtzion, 20:00etatik aurrera. Horretan, Berasartek ahots leun eta liluragarri baten bidez Portugalgo usadio aberatsa plazaratuko du, ozeanoari, desamodioari eta oroimari begira kantatuz. Sarrera 7 euroan lortu ahal izango da. ◀

info+: [www.sopelakoudata.org](http://www.sopelakoudata.org)

## Difret filma, ikusgai hilaren 12an, Kurtzion

**K**urtzio kultur etxeak arazo sozialen gaineko zinema-proiektzioa hartuko du hilaren 12an, zapatuan. Oraingo honetan, Angelina Jolie-k ekoiztutako eta Etiopiako Zeresenay Berhane-k zuzendutako *Difret* lana aurkeztuko dute, 20:00etatik aurrera. Jakinarazi dutenez filma jatorrizko bertsioan (ingelese) proiektatuko dute, Filmazpit elkarteak egindako euskarazko azpittituluakaz; sarrera doakoa izango da. *Difret* errealitatean oinarritutako lana da. Meaza Ashenabi izeneko abokatu baten istorioa kontatzen da; Addis Abeban (Etiopia) abokatu baten beharra duten txiroei laguntzeko laguntza-sarea sortzen du Ashenabik. Horren ondorioz, poliziaren eta gobernuaren jazarpena jasango du abokatuak. ◀

## Sekekoren historia gordetzeko grabazioa

**H**ausnarketa baten ostean, Gazte Asanblada Sopeloztarrak Sekeko gaztetxea ixteko erabakia hartu du. Gune autogestionatua behin betiko itxi aurretik, bertan diren materialak bueltatuko dituzte; horretarako, bertan zerbait daukan orori harremanetan jartzeko eskatu diote. Bestalde, hilaren 12an eta 13an, zapatu eta domeka, bideo bat grabatuko dute Sekekoko historia gordetzeko. Hala, gaztetxean esku hartzeren bat izan dutenei bertaratzeko eskatu diete. Goizean (11:30ean eta 14:30ean) eta arrastian (17:30ean eta 19:30ean) grabatuko dute, Sekekon bertan. Gaztetxea itxi arren, ordea, asanbladak «bizi-bizirik» jarraituko duela ohartarazi dute, «inertziatik askatuz, aisialdia eta herri-mugimendua astintzeko». ◀



Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28  
info@anderdeuna.eus · [www.anderdeunailcastola.eus](http://www.anderdeunailcastola.eus)

## Berango

# Jardunaldi moreak

**Martxoaren 13an, Berdintasunaren** aldeko jaia egingo dute Nagusien Etxearen ondoko plazan.

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira Berangoko Udalak antolatutako jardunaldiak hasi besterik ez dira egin. Hilaren 5ean *Perdida* filma proiektatu ostean, hilaren 12an udalerriko emakumeek emanaldia eskainiko dute Berango Antzokian, 19:00etatik aurrera. Emakumearen Elkartek, Nagusien Etxeko nagusiek, ACADAE-Txirlora taldeak eta Kultur Etxeko ATE taldeak parte hartuko dute saioan. Hurrengo egunean, hilaren 13an, domekan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko jaia egingo dute, Nagusien Etxearen ondoko plazan, 10:30etik aurrera. Ordu horretan ere, Emakumea-



Hilaren amaierara arte iraungo du Emakumearen Jardunaldiak. © BERANGO ALBISTEAK

ren Elkartearen martxa abiatuko dute taldeko egoitza hasi eta frontoiraino. Ondoren, 13:00etan, adierazpen instituzionala irakurri ostean, pintxo-potea egingo dute; dantza egiteko aukera ere egongo da, baita umeentzako jolasak ere, besteak beste. Hilaren 19an, berriz,

Juego de Damas antzerki-taldeak *Lentejas y lentejuelas* lana eskainiko du, Berango Antzokian, 19:00etan; sarrera, doan. Azkenik, hilaren 20an, *Futbolariak eta printzesak* umeentzako antzez-lana aurkeztuko dute Berango Antzokian, 18:00etan, hiru euroren truke. ◀

## Bigarren eskuko azokarako izena emateko epea, zabalik

Aurton ere, Berangok hartuko du Aukera On Uribe Kostako bigarren eskuko gauzen azoka; oraingo honetan apirilaren 10ean. 2013ko irailaren 27an egin zuten eskualdean mota horretako lehenengo merkatua. Harrezkero, urtetik urtera, azoka hartzen duen herria aldatzen dute. Antolatzaileek diotenez, «batzuentzat daborduko baliagarriak ez diren objektuak baliagarriak izan daitezke beste batzuentzat; objektuak berrerabilitzeko aukera ematen du merkatuak». Modu berean, objektuak berrerabiliz, ez dira zaborrera botatzen, eta horrela «bigarren bizitza ematen zaie». Azoka horretan parte hartu gura dutenek martxoaren 20ra arte izango dute izena emateko aukera. Postuak esleitzeko, lehenetsuna izango dute Uribe Kostako Mankomunitateko udalerritan errolatuta daudenek. ◀

info+: [www.uribekosta.eu](http://www.uribekosta.eu)

## Barrika



Jaurlaritzak egindako aldatetako gunerako 62 hektarea inguruko azalerari eragiten dio.

## Barrikabaso eremuko itsasertza babesteko

Eusko Jaurlaritzak Barrikako Barrikabaso eremuko itsasertza babesteko eta antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala aldatzea onartu du. Txipio Bai elkar-teak Foru Aldundiaren aginduen aurka ipini zuen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa onartu zuen 2004an EAEko Auzitegi Nagusiak. Agindu horiek Barrikako arau subsidiarioak aldatzen zituzten: hainbat lursail urbanizatzeko egokitzat sailkatu, eta espazio libreen sistema orokor batzuk birsailkatu zituen Muriolan eta San Telmon. Epaitegiak foru-agindu horiek zuzenbidea-

ren arabera ez zirela ebatzi, eta bertan behera utzi zituen. Aldaketak 62 hektarea inguruko azalerari eragiten dio lurzoru urbanizazinean. Hortxe, orain, honako kategoriak zehaztu dituzte: babes berezi zorrotza labarretan, eta babes berezi bateragarria gainerako esparruan, eta Muriola aldean nekazaritza eta abelazkuntzako kategoria izan duen eremu txiki batean, berriz, kategoria horren orde, nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala kategoria ipintzea proposatzen dute. Aldaketok Barrikabasoarako baino ez dira. ◀

## Gorliz

## VI. Indaba Txapelketa antolatu du Goskoak, hilaren 19rako

Gertu dago Gorlizko bazter guztietan indaben usaina nabaritzeko eguna. Izan ere, Goskoa Gorlizko Saltzaileak, Ostalariak, Zerbitzuak eta Komertzioak herri-erakundeak hilaren 19an ipini du Indaba Txapelketaren hitzordua, seigarrena aurton. Norgehiagoka gastronomikoa Iberrebarri plazan egingo da. Parte-hartzaileak 09:00etan hasiko dira indabak egiten; baina, ofizialki, izen-emateak goizeko 10:00etan hasiko dira. Ondoren, eguerdiko 12:00etan musikak eta kale-animazioak plaza alaituko dute; 13:30ean, berriz, parte-hartzaileen lapikoak aurkezteko ordua izango da.

Jarraian, 15:30ean, Iberrebarri plaza hurreratutako gizon-emakumeek bazkarian indarrak berpiztuko dituzte hurrengo orduetan egongo den jaia-ri aurre egin ahal izateko. Izan ere, 17:00etatik 20:00etara erromeria batek musika eta dantza jarriko ditu bertan. Bien bitartean, 17:30ean, Indaba Txapelketaren irabazleak jakinaraziko dituzte. Lehenengo sariak lapikoa, txapela eta erosketetarako 200 euroko bonua ditu; bigarrenak, lapikoa eta 150 euroko erosketa-bonua; eta hirugarrenak, lapikoa eta 100 euroko erosketa-bonua. ◀

facebook.com/GoskoaGorliz

## Gorliz «dastatzeko» aukera, Xurruten

Aurrera jarraitzen du Gorlizko ezkutuko bazter gastronomikoak ezagutzeko eta dastatzeko ekimenak. Oraingoan, Dastatu Gorliz jardueraren baitan Bizkaiko golkoko kontserbak eta txakolinak probatu ahal izango dituzte Xurrut tabernara hurbiltzen diren guztiek. Saioa hilaren 12an izango da, eguerdiko 12:30etik aurrera. Horretara joateko, aldeztu aurretik izena eman beharra dago, Turismo Bulegoan. ◀

## Musika-talde baten bila, jaietan jotzeko

Uztailean ospatuko diren Santiago jaietan kontzertua emateko musika-talde baten bila dabilta Gorlizko Udaleko jaien arduradunak. Udalerriko musika-talde interesdunek euren proposamenak aurkez ditzakete hilaren 15era arte. Eskabidean, taldearen musika-estiloa jakinarazi beharko dute, besteak beste. Proposamenak Krutzeta kaleko kultur etxean eta Uribe FM irrati-ko egoitzan aurkez daitezke. ◀





Arkataz belarrian

UNAI  
ETXEBARRIA BEITIA  
Arkitektoa

Post-data:  
gerta ala gerta,  
pertsona helburu

Hautaketa-prozesuaren ondorioz, bazter utzi zaituzte, hurrengo arrazoia dela eta: Ez du el-karrizketa gaintitu». Horixe da gutun bidez gure herri mailako erakunde publiko goreneko sail batetik jaso dudana erantzun argigarri bezain eredu-garria. Esaldi esanguratsu horrek, besteak beste, Ikertzaile eta Teknologo Gazteak Prestatzeko Laguntzen Deialdi publikoaren baitan, hautaketa prozesuko nire eta beste gazte askoren ibilbidearen amaiera adierazten du.

Paper honi eta jarraian datozen izendagai-deituren zerrenda opakoari begira halabeharrez zera datorkit burura: lehenik, publikoak eta ofizialak diren beka hautaketa prozesuetan ez dadila mesedez atzamar hautatzailearen eta hautatutakoaren alde aurreko harreman susmagarri-rik egon: prozesu publikoa izanari esker, zerrendetan guztion izenak azkar batean ikusiaz «lotura trifasikoak» berehala antzematen direlako; bigarren, beka deialdi hauetan azpijoko zikinaren kiratsa egon denez, dagoenez eta egoten jarraituko duenez, erakunde horren mesedetan nahitaezko betebeharra iruditzen zait ukatutako eskabideak garen pertsonen gutxienez funtsez garatu eta arrazoitutako erabaki-puntuazio garden zein konparagarriak helaraztea. Hau da, behin betiko zerrenda horretan parte hartu dugun guztiok hautatuen, ordezkoren eta ukatuen puntuazio desglosatua ikusteko eskubidea izatea: puntuak zein atalean ditudan eta zeinetan ez jakiteko, hurrengo baterako atal honetan nola puntuazioa igo dezakedan hausnartzeko eta bide batez, antzezlan bateko txotxongilo galdua izanaren zapore mingots hau kendu ahal izateko.

Hori bai, ditxosozko lema errepikatuz, guztiaren gainetik, adeitasunez:

«Pertsona helburu». ◀

## Unibertsitatea

# «Bestelako hezkuntza eredu bat posible da»

**Herri Unibertsitatea egingo** dute hirugarrenez campuseko ikasleek, hilaren 14tik 16ra. Bertan irudikatu gura dute «eredu kapitalistaren ordezkoko bat posible dela».



Elkarrizketa osoa: HIRUKA.EUS-en.

IKER RINCON MORENO ▶

**H**erri Unibertsitatea izango da hilaren 14an, 15ean eta 16an, Irakasleen Unibertsitate Eskolan. Proiektua azaldu digu Inesa Ugalde Igartua arrasatearrak.

**Zer dela-eta jardunaldi horiek?**

Hezkuntza-eredu horren ordezkoko bezala, horrekin ez gaudelako ados. Gaur egungo hezkuntza-sistemak hutsune handi bat du, bai eduki aldetik, bai pe-

dagogia aldetik. Merkatuaren agindupean eta horren mesedetan funtzionatzen duen hezkuntza bat da, eta horren guztiaren aurrean ordezkoko bat dagoela erakutsi nahi dugu.

**Zein da jardunaldien helburua?**

Hezkuntza kritikoa sustatzea, ikasleak aktibatzea bidean. Erakustea benetan posible dela, badagoela beste hezkuntza-eredu bat. Bestalde, Herri Unibertsitatea hiru egunetik harago joango den proiektu bat izatea nahi dugu.

«Herritik eta herriarentzako hezkuntza-eredua» aldarrikatzen duzue; zelan definituko zenuke hori?

Denon artean ikastekoa, pedagogia askatzailea darabilena, eta denon jakintza bata besteari erakusten diona. Herriak herriarentzat egina. Gu herritik gatzoz unibertsitate, baina hemen ikasi eta egiten ditugun ikerketak, proiektuak eta lortzen dugun jakintza guztia hemen gelditzen da, herrira bueltatu barik; herriak ez du ezer jasotzen unibertsitateetik. Azken finean, enpresetara bideratutako eta sistema kapitalista baten baitan mugitzen den sistema bat da gaur egungo eredua, eta guk horren ordezkoko aurkezten dugu, ez dugulako horretan parte hartu nahi.

**Aurtengo Herri Unibertsitatearen zein alde nabarmenduko zenuke?**

Elikadura-buru-jabetza izango dugu oinarri, eta kontsumituko diren produktu guztiak bertokoak izango dira. Bestalde, ondorio batzuk eta jarraikortasun bat lortzera bidean, lehenengo bi egunetan landuko ditugun hiru ildo nagusiak hauek izango dira: nazio, klase eta genero zapalkuntza. Hirugarren egunean, hiru bloke horien ondorioak aterako ditugu, besteak beste. ◀

## Plentzia

# Xabier Amuriza bertsolariagaz, Euskara Agenda aurrera doa

**X**abier Amuriza bertsolari etxanotarra Plentziara hurreratuko da hilaren 17an, eguena. Izan ere, Gorlizko eta Plentziako Euskara Agendaren baitan, bertsolariak «Euskalkiak eta euskara batua bertsolaritzan» berbaldia eskainiko du Goñi Portalen; hitzordua arrastiko 07:00etan ipini dute. Orduan, Amurizak bertaratutakoei azalduko die euskalkiek eta euskara batuak bertsolaritzan zer-zelako harremana duten; izan ere, bertsolarien jardunean askotan egiten dute talka euskalkiek eta euskara batuak, besteak beste.

**Logo lehiaketa, bertan behera**

Joan den martxoaren 4an Euskara

Agendaren irudiaren logotipoa aurkeztu behar zuten Gorlizko Sertutxena aretoan. Guztira 13 proposamen jaso zituzten. Hala ere, Uribe Kostako Mankomunitateak jakinarazi duenez, lehiaketa bertan behera utzi dute «logo- eta lema-lehiaketan, formazko zenbait akats egon direlako». Hori dela-eta, beste logo-lehiaketa bat prestatzea erabaki du epaimahaiak. Horretarako, baldintza eta arau berriak osatu eta aurrerago ipiko dituzte eskuragarri, baita informazio gehigarria eskaini ere. Hori bai, aurrekoan legez, oraingo logotipo-proposamenek ere herri bien arteko historia eta euskararekiko lotura islatu beharko ditu. ◀

# Usoen populazioa kontrolatzeko sistema, ezbaian

**H**iribilduko usoen populazioa kontrolatzeko gas bidez hilko dituztela gezurtatu du David Crestelo Plentziako alkateak; «usoen populazioa kontrolatzeko, usok hartu, aste batzuetan elikatu, eta ostean eutanasiaren bidez hiltzen dira», argitu du. Ostera, Aprova animalien aldeko elkarteak Udalak «gas bidezko» neurriak hartzea aurrekusi duela esan ondoren, sinadurak batzen hasi da Change.org plataforma bidez, horren kontra egiteko eta Udalak beste «aukera» bat bila dezala aldarrikatzeko. Halaber, Crestelok jakinarazi duenez, aurretik, beste neurri batzuk hartzen ere ahalegindu dira. ◀

info+: [www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)

# Albuma



© GETXOKO UDALA



© HODEI TORRES



© BARRIKA PIRAGUA TALDEA



© PLENTZIA TELEBISTA



© HODEI TORRES



© HODEI TORRES

**H**obeto ikusteko, egun bakarrean argiztatuko dugu? Hobeto entzuteko, egun bakarrean igoko dugu bolumena? Ulertzeko, egun bakarreko arreta eskainiko diogu? Gogorarazteko, aldarrikatzeko, elkartzeko, salatzeke, egun bakarra? Eguneroko eginbeharra, egitekoa, borroka da emakumeena, parekidetasunaren aldekoa; bada, bultza dezagun bakoitzak bere alde eta moldez...



© BARRIKA PIRAGUA-TALDEA

# Egunero izan bedi



© GETXOKO UDALA



© GETXOKO UDALA



© HODEI TORRES

# hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2016ko martxoaren 10etik martxoaren 16ra arte



hiruka.eus



SOPELA / LEIOA

Kantatzeaz gainera, biolontxeloa eta perkusioa jotzen ditu Dom La Nena-k. © DOM LA NENA

## Maria Berasarte eta Dom La Nena-ren doinuak

Maria Berasarte fado-abeslariak kontzertua eskainiko du bariku honetan, martxoak 11, Kurtzio kultur etxean. Emanaldia 20:00etan hasiko da; sarrerak salgai daude 7 euroan, ohiko lekuetan. Donostiara da sortzez Berasarte, baina Lisboan bizi da. Han ikasi du fadoak kantatzen; gaztelaniaz abestu ohi du. Ahots leun eta liluragarri baten bidez, Portugal-

go usadio aberatsa plazaratzen du; ozeanoari, desamodioari eta oroimnari begira abesten du.

Martxoaren 18an, ostera, Dom La Nena kantari eta biolontxelistak sildarra egongo da Kultur Leioako Anbigun. Hitzordua 21:00etan ipini dute; sarrera, 8 euroan. Dominique Pinto abeslariaren izen artistikoa da Dom La Nena. Kostaldeko Porto Ale-

gre hirian jaioa, umezaroa eta nerabezaroa bere jaioterrian, Parisen eta Argentinan igaro zituen; Christine Walevsk estatubatuar biolontxelistak ospetsuagaz ikasi zuen. Musikari sildarra Soyo bere bigarren diskoagaz helduko da Kultur Leioara; bihotzetik egindako musikaz, zeruertz handietako ipuinez, nahiez eta malenkoniak beteko du agerlekua. ▼

2016/03/10 - 11:30

### **Politica, ciudad y ciudadanía mahai-ingurua**

Gizarte Zientzietako entzungela | Campusa Politika eta Administrazio Zientzien Sailak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/03/10 - 18:00

### **Al encuentro de Mr Banks zinema-foruma eta merienda**

Goñi Portal kultur etxea | Plentzia Araidiko emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/03/10 - 18:15

### **Emakume errefuxiatuen gaineko berbardia**

San Jose eliza (Itzubaltza/Romo) | Getxo Gizatiar elkarteak antolatuta. *Mujeres refugiadas: violencias en origen, tránsito y destino* hitzaldia eskainiko du Leire Lasa Fernandezek (CEAR). Gaztelaniaz. Doan.

2016/03/10 - 18:30

### **Zinegoak jaialdiko film laburren aukeraketa**

Aterpe Leioa Gaztegunea | Leioa Egunean bertan gonbidapena eskatu behar da.

2016/03/10 - 18:30

### **Amelia pelikula**

Sertutxena eraikina | Gortiz Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun Sailak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/03/10 - 19:00

### **Servicio domestico antzeziana**

Kultur Leioako entzungela | Leioa Kafe Huts taldeagaz. Gaztelaniaz. Gonbidapenak: Kafe Huts (Lamiako ikastetxea), Andreak (Sabino Arana, 18) eta Gizarte Zerbitzuak (Inaurratzaga, 1).

2016/03/10 - 19:30

### **Venecia, la ciudad berbardia**

Algortako kultur etxea | Getxo

Venezia eta bertoko margolarien inguruko berbaldi-zikloaren barruan. Mugabarik elkarrekin antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

2016/03/10 - 20:00

### **Zure hatzaren ez galtzeko poesia- eta musika-emanaldia**

Azabarri (Euskal Herria, 14-16) | Getxo Itxaro Borda eta Itsaso Gutierrezegaz. Doan.

2016/03/10 - 20:00

### **Jazte Borrazte Band taldea**

2016/03/12 - 20:00

### **Difret filma**

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Gizarte Zinemaren Zikloan. Amhareraz, euskarazko azpituiluakaz. Doan.

2016/03/12 - 20:00

### **Irrational man filma**

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/03/12 - 20:15

### **El renacido filma**

Kultur etxea | Urduliz

16 urteik gorako ikusleentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

2016/03/12 - 23:00

### **San Patrizio: folk-kontzertua**

The Piper's taberna (Algorta) | Getxo

The Old Timey String Band boskote getxoztarrek joko du. Sarrera, doan.

2016/03/13 - 09:30

### **Motorzaleen ibilaldia**

Karl Marx, 17 (Astrabudua) | Erandio

Astrabu Motor Klubak antolatuta. La Ventillara (Burgos) joango dira. 14:00ak aldera egongo dira bueltan.

2016/03/13 - 10:00

### **Mankomunitateko martxoaren 8ko ekitaldia**

Plentziako hondartza | Plentzia

VII. Mendi Martxa (10:00), batukada eta kirol-erakusketa (12:30) egin, eta adierazpena irakurriko dute (13:00).

2016/03/13 - 10:30

### **Emakumeen ibilaldia**

Torrekolanda bidea, 8 | Berango

Frontoian amaituko dute, 13:00etan. Doan.

2016/03/13 - 12:30 / 18:00

### **The Shoe Tree txotxongiolen ikuskizuna, umeentzat**

Kultur Leioako entzungela | Leioa

Pea Green Boat taldeagaz. 3 eta 6 urte arteko umeentzat. Ingelesez. Sarrera: 5 euro.

2016/03/13 - 13:00

### **Berdintasunaren aldeko jaia**

Nagusien etxeko plaza | Berango

Euria egitekotan, frontoian. Besteak beste, adierazpen instituzionala irakurriko dute; dantza egiteko aukera egongo da (Inaki Urbesalgotzagaz; elkartasuneko pintxo-potea egongo dute (Catiñasen alde (euro baten truke);

ERANDIO

## Parekidetasunaren aldeko antzezlan

*Futbolariak eta printzesak* antzezlanaz gozatzeko aukera edukiko dute txikiak martxoaren 17an, eguena, Altzagako azoka zaharrean. Emanaldia 18:00etan izango da, euskaraz; sarrera, doan. Berdintasun Zerbitzuak antolatatu du. ◀

GETXO

## Ipuinak euskaraz umeentzat, Algortan

*Bazan Kalabazan* goiburuagaz, ipuinak euskaraz kontatuko ditu Ana Meabek, martxoaren 17an, eguena. Ekitaldia 18:00etan izango da, Villamonteko haur-liburutegian; sarrera, doan. 5 eta 10 urte arteko neska-mutilentzat da. ◀

PLENTZIA

## Xabier Amuriza, Euskararen Agendan

Martxoaren 17an, eguena, izango da Gorliz eta Plentziako Udalek antolatutako Euskararen Agendaren lehenengo ekitaldia: Xabier Amurizak *Euskalkiak eta batua bertsolaritzan* berbaldia eskainiko du 19:00etan, Goiñ Portalen. ◀

Zuzeneko musika dauka ikuskizumak. © BUFALO PRODUKZIOAK



# Sindrome de Estocolmo, andreakaz

Bost emakume aukeratu ditu oraingoan Bufalo Produktzioak taldeak, bere ikuskizunean gonbidatu jarduteko. Hala, Beatriz Catalan aktore eta abeslaria, Eguzki Zubia antzezlaria, Reyes Prados telebista-aurkezlea, Ainara Legardón musika-ria eta Alicia San Juan kazetaria igoko dira oholtzara. ◀

**Noiz:** Martxoak 13, domeka.  
**Ordua:** 19:00  
**Non:** Kurtzio kultur etxea (Sopela)  
**Sarrera:** 3 euro.

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO  
TESTU LABURREN IV. LEHIAKETAREN  
ERAKUSKETA

argihizkiak.com  
**argihizkiak**

Martxoaren 20ra arte Kurtzio Kultur etxean



Asteagunetan  
11:00-14:00 eta 16:00-20:00  
Aste-akabuetan  
11:00-14:00 eta 17:00-20:00



**Glass kafetegia (Areeta) | Getxo**  
Getxon Zuzeneko ekimenaren barruan. Doan.

2016/03/11 - 18:00

### Emakumeen jaia

**Azoka zaharra (Altzaga) | Erandio**  
Erandioko Emakumeen Elkarteak antolatuta. Sarrera, doan.

2016/03/11 - 20:30

### El florido pensil niñas lana

**Kultur Leioako entzungela | Leioa**  
Tantutaka antzerki-taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 15 euro.

2016/03/11 - 21:00

### Il capitale umano filma

**Algortako kultur etxea | Getxo**  
12 urterik gorakoentzat. Italiaraz, gaztelaniazko apitituluakaz. Sarrera: 2,90 euro.

2016/03/12 - 11:00

### Algortako Gazteak taldearen aurkezpen-ekitaldia

**San Nikolas plaza (Algorta) | Getxo**  
Parte hartzea, libre.

2016/03/12 - 16:30

### Master Igeriketaren I. Saria Igerilekuak | Sopela

Sopela Igeriketaren Swim taldeak antolatuta. Sarrera, doan.

2016/03/12 - 17:00

### The Snow Queen filma

**Astrabuduko kultur etxea | Erandio**  
Euskaraz. Sarrera: 2 euro.

2016/03/12 - 18:00

### Robots: la invasion filma

**Kultur etxea | Urduliz**  
Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

2016/03/12 - 19:00

### Emakumeen emanaldia

**Berango Antzokia | Berango**  
Emakumeen elkarteak, nagusien etxeko lagunek, ACADAE antzerki-taldeak eta Kultur Etxeko ATE taldeak parte hartuko dute ekitaldian. Sarrera, doan.

2016/03/12 - 19:00

### Uribe Kostako Bertsolari

### Txapelketaren 2. kanporaketa

**Algorta | Getxo**  
Saioak Villamonte tabernan (19:00), Ekin tabernan (20:00) eta Azebarri kultur gunean (21:00) egingo dituzte.

eta haur-jolasak eta tailerrak egongo dira.

2016/03/13 - 18:00

### Bob Esponja, un heroe fuera del agua filma

**Berango Antzokia | Berango**  
Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/03/13 - 19:00

### Sin pena ni gloria antzezlan

**Astrabuduko kultur etxean | Erandio**  
Emakumeak Eszenan zikloaren barruan. Aztiak taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/03/13 - 19:00

### Me apunto y punto antzezlan

**Areetako musika-eskola | Getxo**  
Emakumeak Eszenan zikloan. Hamailka taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

2016/03/14 - 2016/03/16

### Leioako Herri Unibertsitatea

**Hainbat ikastegi | Leioako campusa**  
Informazio gehiago: leioatik.info

2016/03/14 - 19:00

### Zilarrezko musika entzunaldia

**Astrabuduko kultur etxea | Erandio**  
Erandioko Musika Eskolako hari-instrumentuen ikasleakaz. Sarrera, doan.

2016/03/15 - 19:00

### Sabino Arana kalearen egoeraren inguruko berbaldia

**Sakoneta kiroldegia | Leioa**  
EH Bilduk antolatuta. Sarrera, doan.

2016/03/15 - 20:00

### Truman filma

**Kurtur Leioako entzungela | Leioa**  
Perseo Zineforumaren barruan. 12 urterik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2016/03/16 - 18:30

### Emakume migratuen gaineko diagnostikoaren aurkezpena

**Anbulatorio zaharra (Astrabudua) | Erandio**  
Udalaren Berdintasun Zerbitzuak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/03/16 - 19:30

### Berbaldia Yolanda Arrietagaz

**Aldai Patronatua (Algorta) | Getxo**  
Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak (UKITX) antolatuta. *Argien alaba* liburuz berba egingo du Etxebarriko idazleak. Sarrera, doan.

\* **Martxoaren 8ari lotutako ekitaldiak**



Arrate Illarok, Inazio Vidalek eta Aitzol de Kastrok lortu zuten finalurrekorako txartela Leioako kanporaketan. © ALBE

## Uribe Kostako Bertsolari Txapelketa

### Martxoak 12, zapatua

#### Bigarren kanporaketa, Algortan

**19:00** Josu Landeta, Arkaitz Gomez, Joanes Igeregi eta Daniel de Miguel, Villamonte tabernan.

**20:00** Jone Uria, Unai Larrazabal, Pello Etxebarria eta Peio Arondo, Ekin tabernan.

**21:00** Imanol Uria, Ekaitz Larrazabal *Katxo*, Miren Loizaga eta Itxaso Paia, Azebarrin.

### Martxoak 19, zapatua

#### Finalurrekoa eta finala, Plentzian

**12:30** Poteoa.

**13:00** Lehenengo finalurrekoa.

**14:30** Bazkaria, Danontzat gaztetxean. Helduak, 12 euro, eta adin txikikoak eta lanbakoak, 10 euro. Izen-ematea, martxoaren 16a baino lehen. Begetarianoek aurretiaz abisatzea eskatzen da.

**17:00** Bigarren finalurrekoa.

**18:00** Hirugarren finalurrekoa.

**21:30** Finala.

bazkarirako izen-ematea: 605 704 385

# Oraingoan, Algortan

**Uribe Kostako Bertsolari Txapelketaren** bigarren kanporaketa zapatu honetan, martxoak 12, jokatu da Algortan; beste 12 bertsolari lehiatuko dira.

Joan den zapatuan, martxoak 5, abiatu zen Uribe Kostako Bertsolari Txapelketa, Leioan. Bertsolarien egin beharreko lana ondokoa zen: hasierako agur puntuagarria, ofizioan hiruna bertso zortziko nagusian, beste hiruna zortziko txikian, eta bertso bat berba bat gaitzat emanda. Lehenengo saioan, Ganeko tabernan, Arrate Illaro nagusitu zen; modu ho-

rretan, martxoaren 19an Plentzian jokatu den finalurrekorako txartela zuzenean lortu zuen. Bere atzetik, hurrenez hurren, Unai Mendiburu, Peru de Pedro eta Xabier Albizu *Txuri* sailkatu ziren. Bigarren saioan, Kurkudi tabernan, Inazio Vidal nabarmendu zen. Atzetik Peru Vidal, Galder Bilbao *Txapi* eta Iñigo Kortazar lotu ziren. Azkenik, hirugarren saioan, Kazu

pubean, Aitzol de Kastrok lortu zuen lehenengo postua. Atzetik, Beñat Vidal, Paule Loizaga eta Xabier Saiz de la Maza joan ziren. Hala, martxoaren 19ko finalurrekora zuzenean Arrate Illaro, Inazio Vidal eta Aitzol de Kastro pasa ziren. Gainerakoek puntuazioari begira egon beharko dute; bigarren kanporaketa zapatu honetan, martxoak 12, izango da Algortan.

#### Gazteak, finaletik kanpo

Bertsolari gazteen BBK sariketaren bigarren eta azken finalurrekoa jokatu zen joan den martitzenean, martxoak

8, Zallako Zine antzokian. Hego Uribeko eta Uribe Kostako taldeek jardun zuten kantuan, eta Hego Uribekoak lortu zuen finalerako txartela, 419 puntugaz; Uribe Kostak, 411 puntu lortu zituen. Hala, iaz uribekostarrek irabazitako txapelak ugazaba berria edukiko du aurten.

Zoritxarrez, finalurrekoa galduta, martxoaren 18an Bilboko Kafe Antzokian jokatu den finalean kantatzeko aukerarik ez dute izango gure eskualdeko bertsolari gazteek; Hego Uribeko eta Busturialdeko gazteak egongo dira aurrez aurre. ◀

## Yolanda Arrieta idazlea, UKITXek gonbidatuta



Yolanda Arrieta. © EUSKO JAURLARITZA

Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak (UKITX) gonbidatuta, eguaztenean, martxoak 16, Yolanda Arrieta idazleak emango du berbaldia Algortako Aldai Patronatuan (Karitate kalea, 1); *Argiaren alaba* (2014, berak ekoiztua) liburuaren

inguruan egingo du berba etxebarri-tarrak. Hitzordua 19:30ean ipini dute; sarrera, doan. Bizenta Mogel Elgezabal (1782-1854) idazle bizkaitarra akorduan idatzi zuen eleberria Arrietak. Liburuaren egin aurretik, ordea, XVIII. mendeko idazle klasiko horren inguruko tailerrak eskaini zituen. Eta ikastaroaren harrera onak bultzatuta idatzi zuen gero nobela. *Argiaren alaba* liburuagaz 2015eko Euskadi Literatura Saria jaso zuen Etxebarriko idazleak. Lan horren helburua Mogelen bizitzara eta bizimodura hurbiltzea izan zen, datu errealetan oinarritutako fikzio baten bidez, fikzio-prozesua bera dela ardatz eta eragile. ◀

Ume, nerabe eta helduentzako saioak eskainiko ditu Zinegoak jaialdiak, Getxon

Besteak beste, martxoaren 20an, nerabeei begirako film laburren zikloa hartuko du Algortako Gauegun Gaztelekuak, Zinegoak Hedapenak zikloaren barruan. Saioa 18:00etan izango da; sarrera, doan. Martxoaren 21ean, berriz, Algortako kultur etxean egongo da ikusgai film laburren sorta, 20:00etatik aurrera, adin guztietako ikusleei zabalik. Hala ere, aurten, gaylesbotrans-gaia txikienei erakusteko helburuagaz, Zinegoak Hedapenak zikloak *Titiritesa* ipuin-kontakteta eskainiko du Areetako Kukupraka ludotekan, eguaztenean, martxoak 16, 18:00etan (5-6 urtekoentzat); bazkideentzat bakarrik izango da. ◀

Martxoaren 12an, San Patrizio eguna ospatuko dute Algortako Piper's taberna irlandarrean

San Patrizio eguna martxoaren 17an ospatu ohi da; irlandar jatorria duten guztiek ospatzen ei dute, eta jatorri hori ez dutenak ere batzen zaizkie sarritan. Hala, egun hori itxaron barrik, zapatu honetan, martxoak 12, San Patrizio ospatzeko folk kontzertua egingo dute Algortako Piper's taberna irlandarrean. Emanaldia 23:00etan izango da; sarrera, doan. The Old Timmey String Band boskote getxoiztarra izango da kontzertuaren protagonista; country, folk, bluegrass eta sustrai iparamerikarreko soinuen nahasketa egiten dute. Euren musikari egiazkotasuna ematen dioten musika-tresna akustikoak jotzen dituzte. ◀



Andy Hansonen dosia

JON  
URRAZA INTXAUSTI  
Aktorea

## Spotlight, Oscar-ak eta erlijioa eskolan

Film onenaren Oscarra, apaizen pederastia sistematikoki estali duen eliza katolikoa ikertu zuten kazetariei buruzko *Spotlight* bikainari eman zioten. Konprometitu, oso ondo kontatua eta ederki zuzendu eta interpretatua.

Baina Nerbioi nire leiho azpitik igarotzen dela baliatuz, gure euskal eskola publikoetan erlijioa eskaintzeaz hitz egin nahi dut. Astean behin, gure semearen gelakide batzuk, ikastola publikoan, erlijioa dute. Aurreko astean, Eibarren bigarren hezkuntzan, antzerki tailerrak ematen ibili nintzen, eta ikasle musulmanak izan nituen. Horiek ere erlijio klasea izateko eskubidea daukate? Jon Maiak indarrez aldarrikatu bezala, horiek ere euskaldunak dira. Baina erlijio irakasleak ez datoz Hezkuntzako zerrendetatik, gotzaingo katolikoak hautatzen ditu...

Dena den, kristau, musulman, judu, ateo zein nudisten seme-alaben erlijio edo ez-erlijio hezkuntzak, ustezko autonomi laiko honetan, eskola publikotik kanpo beharko lukeela uste dut. Baina atentzioa hots egiten dit bereziki, behin euren «eskubidea» gauzatuta (gogoratu hezkuntza umeen eskubidea dela ez gurasoena), guraso hauen determinazioa ordu horretan irakasleak gainontzeko ikasleekin «materia aurreratu» ez dezan.

Bada galdu dezagun ordu hori Pisako informe eta errebalidetan neurtu ezin diren gauzeekin. Desaprobetza dezagun ordu hori probetxuzko heldu bilakatzeko interesik ez duten gaitasunetan. Xahutu dezagun ordua sormena jokatzeko, emozioak margotzen eta harremanak dantzatzeko. Galdu dezagun ordua ondo! Lasai, ez zaie ardurako, azken finean *Spotlight*-ek, gidoi onenaren saria ere eramanez, baina albistegietan ez zuten hori aipatu, ez da-eta inportantea. ◀

# «Amarrua erabili dut Mendibile ikusarazteko»



Apirilean hasiko da horma-irudia margotzen.

**Aritz Mugerza Horas** artista deustuarraren *Mahatsa bizirik* irudiak jantziko du Leioako Mendibile jauregiko sarrerako horma, aurtengo lehiaketa irabazi ostean.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

**D**ozena bat proposamenen artean, Aritz Mugerza Horas margolariak aurkeztutakoa aukeratu du Mendibile Jauregia elkarteak, horma-irudien lehiaketaren bigarren edizioan; bilbotarra apirilean hasiko da murala margotzen.

**Pozik hartuko zenuen lehiaketa irabazi izana, ezta?**

Bai, noski! Aurkeztu nintzenean argi neukan proposamen gehiago egongo

zirela; beti pentsatu izan dut besteen proposamenak nireak baino hobek direla. Oraingoan, nirea aukeratu dute aurkeztutakoen artean.

**Pablo Astrainek iaz egindako lanaren jarraipena da zuk aurkeztutakoa?**

Laguna daukat Pablo getxoztarra; *Aztarna* muralarekin irabazi zuen berak Mendibile Jauregiak antolatutako lehenengo lehiaketa; ondoko horma pintatzea egokitu zait niri. Hala, teknikari dagokionez, jarraikortasun bat eman nahi izan diot Astrainen lanari,

tonalitateei eta irudien trataerari dagokionez, gehienbat.

**Hala ere, hainbat berrikuntza sartu dituzu zure lanean.**

Bai. Sarrerako eskaileren alboko horma margotu behar dut nik. Lehenik eta behin, amarru bat erabiltzea pentsatu nuen, jauregia ikusgarriago egiteko. Horma horrek nahikotxo estaltzen du eraikina. Hori dela-eta, etxearen aurrealdearen zuri koloreak eta leihoek

“*Beti pentsatu dut besteen proposamenak hobek direla; oraingoan, neuk irabazi dut!*”

horma horretan isla eduki behar zutela erabaki nuen. Bestalde, eskailek mahastia balira bezala imajinatu nituen.

**Akabera bitxia emango diozu zure horma-irudiari, orduan.**

Horrela da. Paul Cezanne-ren *Karta-jokalariak* koadroan oinarritu naiz nire horma-irudiaren amaierako zatirako. Artelan horretan, bi lagun agertzen dira kartetan, mahaigainean ardo botila bat daukatela. Mahatsaren jaiotza eskaileretako mahastian egongo litzateke; eta heriotza, ardo bilakatuta, gizon horien eztarrian barrena. ◀

## Umeentzako sormen- tailerrean, izen-ematea

**P**azko Astean, *Oporrak kultur etxean* goiburuko tailerrak antolatuko ditu aurtengo Ge-txoko Udalak; Itzubaltzeta/Romoko kultur etxean izango dira martxoaren 29tik apirilaren 1era, 11:00etatik 13:00era. Jarduera 3 eta 12 urte arteko umei zuzenduta dago; euskaraz eta gaztelaniaz izango da. Parte-hartzea, doan (lekuak bete arte). Tailerrean, zirkuagaz zerikusia daukaten hainbat jarduera egingo dituzte; barbarako, jolasak, dantza, musika, antzerkia, ipuin-kontaktak eta eskulanak.

Sormen-jardueran espezializatutako begirale bik emango dituzte tailerrak egunerok; parte-hartze eta adis-

kidetze-jolasakaz abiatuko da egun bakoitzeko hasiera-saioa. Jarraian, askotariko hainbat jardueratan, iruditzena landuko dute. Hala, dantza eta musika-ikuskizunak egingo dituzte, baita eskulanak ere. Azken horietan, besteak beste, umeek animalia-zirkua, malabarismo-tresnak eta pailazo-mozorroak egingo dituzte. Antzerkia ez da faltako tailerretan, eta egun bakoitzean umeek zirkuaren pertsonaiak antzeztuko dituzte: pailazoak, animalia-hezleak, malabaristak, orekariak... Ipuinetarako lekua ere egongo da, eta zirkuaren bizitza izango dute erabateko protagonista. ◀

izen-ematea: 944 649 133

## Emakumeak Eszenan zikloak saio bana eskainiko du Areetan eta Astrabuduan

**U**rtarrilaren 31n abiatu zen Bilbo-ko Campos antzokian *Emakumeak eszenan* zikloaren hamargarren edizioa. Besarkada federazioak antolatuta, antzerkigintza amateurrean dabilen emakumeen lana ezagutzera ematea da ekimenaren helburua. Hala, domeka honetan, martxoak 13, saio bana egongo da 19:00etan, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean eta Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Erandio aldean, *Sin pena ni gloria* antzezlan eskainiko du Aztiak taldeak; sarrera 2 euroan egongo da. Areto getxoztarrean, osterara, Hamaika taldearen *Me apunto y punto* egongo da ikusgai, 3 euroan. ◀

## «Emakumeen borrokaren isla da Palestinaren historia»

**Mar Gijon Mendigutiak** idatzi du *Historia del movimiento de las mujeres en Palestina* liburua. Jatorriz madrildarra izan arren, lau urte dira Algortan bizi dela; Getxon sortu zen Biladi elkarte palestinarreko kide da 2012tik. Gijonen arabera, munduan jazotzen diren «bidegabekeriarik handienetako bat da» palestinarrek sufritzen dabiltzana; dioenez, «lau haizetara zabaldu beharra dago».



KEPA UGARTE MARTIARENA

### Herri zapalduen historia beti ostendu gura izan dutela diozu.

Palestinaren kasuan, oso nabarmena da. XIX. mendean kolonizazioa hasi zenetik eta sionistak heldu arte, lur horietan ezer ez zegoela aditzera eman nahi izan dute sionistek; mitoen bitartez, bertan biztanlerik ez zegoela, basamortu bat baino ez zela esan dute behin eta berriro. Zoritxarrez, gaur egun gauza bera esaten jarraitzen dute; ez dute azaleratu nahi palestinarren benetako historia zein den, eurek saltzen dutenaren kontra doalako.

### Zer erakutsi gura digu zure liburuak?

Besteak beste, sionistak heldu aurreko gizartea zelakoa zen islatzen ahalegintzen da *Historias del movimiento de mujeres en Palestina* liburua. Bertoko biztanleak nagusiki baserritarrek eta abeltzainak ziren arren, hiriguneak ere bazeuden; emakume eta gizon horiek lan egiten zuten, eskolak zeuzkaten... eta historia ezin aberatsagoa zuten. Hain zuzen ere, ezkutatatu hori gura dute. Musulmanak edo kristauak izan, gainerako herritarrek bezala, kolonizazio sionistaren eta okupazio britaniararen kontra besoz beso lan egiten zuten bertoko emakumeek; gaur egun gauza bera gertatzen da.

### Israelgo Estatua sortzeak ekarri zuen gizarte hori suntsitzea ezta?

Israelgo Estatua sortzeak, 1948an, Nakba izenarekin ezagutzen dena eragin zuen; aurretik Palestinan

existitzen zen gizartearen suntsiketa eta espoliazioa eragin zituen. Jendarte horren oinarriak deuseztatu ziren; kristauak edo musulmanak, berdin zitzairen, biztanleen erdiak, 750.000 lagun baino gehiago, kanporatu zituzten; eta hori gutxi balitz bezala, palestinarren jabego guztiak bereganatu zituzten israeldarrek. Lapurreta eta espoliazio horren barruan, palestinarren historia jasotzen zuten agiri eta liburuak ebatzi zituztela kontuan hartu behar dugu; oso garrantzitsua da horiek guztiak berreskuratzea. Hori guztia eragin zuen Israelgo Estatuaren sorrerak.

“Arazoa humanitarioa dela uste dute batzuek; Israelek palestinarren erdiak kanporatu zituen 1948an”

### Espainiako edo EAeko agintari eta komunikabideek ere Palestinaren errealitatea ezkutatzeko ahalegin du direla uste duzu?

Ez dut uste errealitate hori ezkutatzeko saiatzen direnik. Hala ere, Israelekin harremanak izatean eta legitimatzean,aldi berean, Palestinaren historia esalpean geratzea bermatzen ari dira. Batzuentzat oso mesedegarria da Ekialde Hurbila musulman eroen

anabasa izango balitz bezala ikustea. Existitzen ziren kultur aberastasuna, etnia eta erlijioen askotarikotasuna... ez dituzte ikusi nahi. Bestalde, egon badaude Palestinako afera arazo humanitario soiltzat ikusten dutenak... Oстера, Israel zigortzea, erabateko neurri politikoak beharrezkoak dira.

### Palestinako emakumeen eta bertako mugimendu feministaren kasuan, ezkutaketa-belo bikoitzaz berba egiten duzu.

Belo bikoitzaz ari naiz, emakumeen eta mugimendu feministaren jarduna erabat lotuta egon delako Palestinako Nazio Askapenerako Mugimenduarekin, eta bereizteko modurik egon ez delako. Emakumeek izan duten papera nabarmentzeari garrantzitsua deritort; Palestinaren historia are gehiago osatzeko ez ezik, errealitate horretara gerturatzeko ahalegina ere bada, nahiz eta arrotz zaigun gizartea saldu nahi dituden.

Emakumeen bitartez, palestinarren erresistentziaren beste talaia bat agerian uztea baino ez da. XIX. mendean hasi eta XX. mendean erdialdera arte, andre palestinarrek sabotajeak egiten zebiltzan; egunkarientzako memorandumak idazten zituzten; goi-mailako bitartekari politikoekin biltzen ziren britaniarren eta sionisten kolonizazioak salatzeko asmoz; manifestazioak egiten zituzten; armak eskuan borrokatzen ziren... Hori guztia nabarmentzea garrantzitsua zela uste nuen, Palestinako Nazio Askapenerako Mugimendutik aparte; emakumeen





## Bibliografia

Itzalpean geratzen den eta ezkututzen saiatzen diren historia da herri txiki eta zapalduena. Palestinarenagaz ere gertatzen da. Itzalpea bikoitza da emakumeen eta mugimendu feministaren kasuan. Birritan zapaltzen eta estalarazten duten gizarte palestinarren zati horri hurbiltzen zaio liburua. Historia eta soziopolitikaren ikuspegitik, XIX. mendearen amaieratik gaur egunera, emakume palestinarrek kolonialismoaren kontrako borrokan (britainiarren zein sionisten aurka) eta euren eskubideen defentsan izan duten berebiziko eginkizuna deskribatzen digu idazleak. Palestinako emakumeen mugimenduaren sorrera, berezitasunak eta bilakaera kontatzen ditu, hainbat iturri biografikoren eta ekintzaileei egindako elkarrizketen bitartez. Mundu osoko emakumeen arazoak, horien irtenbidea, desirak eta borrokak berdinak direla agerian uzten du.

**Historia del movimiento de mujeres en Palestina**

**Egilea:**  
Mar Gijon Mendigutia

**Argitaletxea:**  
Txalaparta

**Hizkuntza:**  
Gaztelania

**Edizio urtea:**  
2015



mugimenduaren bilakaeraz baliatuta, Palestinaren historia harilkatzeko aukera ematen du liburua.

### Zein da Palestinako mugimendu feministaren gaur egungo egoera?

Egun hauetan, Soraida Hessein ekintzaile palestinarra izan dugu gure artean, eta horretaz hitz egin digu. Palestinak bizi duen egoera inoiz baino larriagoa da; okupazio-egoera aurrera doa; gero eta okerragoa da. Badirudi ezin dela txarragoa joan, baina Israelek ez dauka mugarik. Ildo horretan, herritar eta erakunde guztiak bezala, une oso zailak bizitzen ari da emakumeen mugimendua.

Hala ere, esperantzarako zirrikituren bat badago, 90eko hamarkadaren bukaeran, palestinar gizarteak batasunerako prozesu bat abiatu zuen, ustezko bake-hitzarmenak bultzatzeko asmoz; akordioetatik sortu behar zen Palestinako Estatua ez da oraindik heldu. Soraida Huseinek dioenez, ordutik hona, anestesiatuta egongo balira bezala igaro da denbora; baina, orain, berriro esnatzen ari dira.

### Zertan datza berpizte-prozesu hori?

Palestina botere-hutsunea dagoela esan daiteke: batetik, mesfidantza handia dago buruzagi batzuekiko; bestalde, beste batzuk Israelek hil edo espetxeratu egin ditu. Herri-batzordeek bermatu dute erresistentziaren berpizte-prozesu hori. Esaterako, Israelen kontrako Boikot, Desinbertsio eta Zigor kanpaina gero eta atxikimendu gehiago jasotzen ari da. Bes-

talde, badaude ekintzaile gehiago beste hainbat arlotan lanean dabilzanak: hezkuntzan, osasunean, edo Zisjordaniako harresiaren kontrako *Stop the wall* kanpainan. Herri-batzordeen bitartez, okupazioaren kontrako erresistentzian zeregin aktiboagoa betetzen ari da gizarte zibila. Beharrezkoa da; egoerak horixe bera eskatzen du.

### Zertan egiten du lan Biladik?

Biladi 2003an sortu zen. Lankidetzan baino, garapenerako hezkuntzan egiten dugu bultzada in-

**“Bake-negoiazioek ez dute fruiturik eman; boikota, Israeli kalte ekonomikoa egitea da irtenbide bakarra”**

dartsuena; gizarte palestinarrekin elkarlanean jardunez askoz gehiago lor daitekeela uste dugu. Horretaz gain, hitzaldiak ere ematen ditugu Palestinaren egoera ezagutarazteko. Bestalde, Felipe Gonzalez irakaslea buru, EHUko Zientzia Politikotako Sailarekin elkarlanean dihardugu: dokumentalak jartzen dizkiegu ikasleei, Palestinaren iragana zein den ezagut dezaten. Ildo berean, Nazio Batuen Era-

kundearen simulazioa egin dugu, onartu beharko litzuketen erresoluzioak landuz. Fernando Sancho Biladiko proiektuen koordinatzailea eta biok ari gara horiek guztiak lantzen. Beste erakundeekin ere elkarlanean gabilta.

### Zelan ikusten duzu Palestinaren etorkizuna? Zein litzateke gatazkaren konponbidea?

Irtenbidea argia da: beste herrialdeen jarrera politiko sendoa, Israeli zigorrak ezarriz, Israelek legeak bete arte. Boikot, Desinbertsio eta Zigor kanpainak Biladiren erabateko babesa dauka; Hegoafrikan gauza bera egin zen apartheidarekin. Ildo horretan, argi utzi nahi dugu ez dela judutarren aurkako ekimena, sionistek hori transmititu nahi duten arren.

Nazioarteko legeen barruan dago kanpaina; Israelek okupazioa bertan behera uzten ez duen bitartean, arlo guztietan boikota egitea proposatzen du. Batetik, lau haizetara zabaldu nahi dugu Israel giza eskubideak errespetatzen ez dituen herrialdea dela. Bestalde, ezin dugu ahaztu, Israelen kolonizazioaren eraginez, Palestinak ezin dituela hezkuntza-, gizarte- edo osasun-esparruak garatu. Azkenik, ezin ditugu ahaztu 1948an euren etxeak utzi eta erbestera joan behar izan zuten palestinar guztiak; horiek guztiak bueltatu beharko lirateke.

Orain arte egindako negoziazioek eta bake-hitzarmenek ez dute fruiturik eman; Israelen ekonomiari min egitea da emaitzarik izan dezakeen egiteko bakarra. Hori da boikotaren helburua. ◀



Iaz Beñat Mardaras ume getxoztarrak lagundu zuen Punta Galeak. © FOTO SAMAR - PUNTA GALEA

## Elkartasuna, Faduran

**Punta Galea txirrindularitza-taldeak** elkartasun-jaialdia antolatu du zapatarako, Faduran. Izen-ematea amaitu da, baina oraindino badira hamaika aukera laguntzeko.

**D**atorren zapatuan, martxoak 12, Punta Galea txirrindularitza-elkartek laugarren elkartasun-jaialdia egingo du Fadurako belodromoan; oraingoan, Alazne Rodriguez Alberdi neskato urduliztarraren aldeko ekimena izango da. Punta Galeak azaldu duenez, umeak zenbait tratamendu behar du, sufritu duen garun-hipoxia baten ondorioz. «Alazne neska borrokalaria eta

oso lagunartekoa da; urteak daroatza lanean tratamendu horien bidez bere ikasketa hobetzeko, eta, horretarako, Bartzelonara sarritan bidaiatzen du», Punta Galeak jakinarazi duenez.

Horregatik, jaialdiaren helburua «ahal den diru dena batzea da, Alazne eta bere sendia laguntzeko», txirrindulari-taldeak azpimarratutakoaren arabera: «ez duzu txirrindulari trebea izan behar; nahikoa da bizikle-

ta, kaskoa eta Alazne eta bere sendia laguntzeko sekulako bihotza izatea». Bestalde, antolatzaileek hainbat sari emango dizkiete zapatuan Fadurako belodromoan jardungo dutenei: azkarrenei, urrutienetik etorritakoei, nagusienei eta originalei.

### Doako sarrera

Jaialdi-eguna goizeko 09:00etan hasiko da, eta 18:00ak aldera itxi arte, sarrera doakoa izango da. Halere, bere harri-koxkorra ekarri gura duenak Punta Galearen kontu-korrontean ere egin dezake. Egun osoan, familiek zer ikusi eta zerez gozatu izango dute Fa-

duran: 4 eta 6 lagun arteko taldekako erlojupekoan, emakumezko zein gizonezko zikloturistek belodromoari 15 bira eman beharko dizkiote; ume zein gazteek jolasetan ondo pasatzeko aukera izango dute; elkartasun-txosnan mokaduak eta edariak izango dira, eta bazkaltzeko, paella erraldoia prestatuko dute gose den edonorentzat, prezio sinboliko baten truke.

Gainera, zenbait kirolari ospetsu ere bertan izango da. Eurek emandako hainbat objektu, zozketan ipiniko dituzte. Martitzenean amaitu zen belodromorako izena emateko epea. ◀

info+: [Puntagalea.com](http://Puntagalea.com)

## Aurten ere, Bizkaialdek klubak babestuko ditu

**P**asa den astean, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak batzar nagusia egin zuen San Mamesen. Fundazioak kirola babesten duten erakunde publikoen eta pribatuen ahalegin ekonomikoak errentagarri bihurtu gura ditu, eta bere helburua da lurraldeko kirolaren eliteko klubak laguntzea. Denboraldi honetan milioi bat euro banatu du fundazioak, eta horietatik laurdena Uribe Kostan geratu da. Gurean laguntza jaso duten klubak hauek dira: Sakoneta gimnasia erritmikoko kluba (12.676 euro), Jolasetako hockey-taldea (61.890), Askartza waterpolo-taldea (39.468), Leioa Igeri Taldea Waterpolo (22.792), Getxo



Rugby Taldea (65.000), Ugeraga-Lointek (40.040) eta Goiherri herri-kirol taldea (12.566 euro). Gaur egun, denek, 42 enpresa, 26 klub eta 28 talde baten ditu fundazioak. Batzar nagusian Unai Rementeria ahaldu nagusia izan zen, Bizkaialdek kirolaren alde egingen duen ahalegina babesteko. ◀

## Aristegui eta Torre, Bizkaiko tenislari onenak

**J**olaseta Errege Klubeko Mercedes Aristegui eta Fadura Tennis Taldeko Iñigo Torre dira Bizkaiko tenislari txapeldunak, gazte-kategorian. Otsailaren amaieran Laukarizen jokaturako finalean nagusitu ziren biak. Jolasetako arteko derbia izan zen emakumezkoen finala; Aristegui Sofia Blanco taldekideari 6-1 eta 6-3 irabazi zion. Aristegui hasieratik zegoen faboritoen artean, talde-burua baitzen. Sofia Blancok, ordea, ezustekoa eman zuen finalerdietan, Naiara Uriarte lehen talde-burua gainditzean. Gizonezkoen modalitatean, espero zen legez, Iñigo Torre nagusitu zen finalean, Mikel Lopez 6-4 eta 6-2 irabazita. ◀



© JOLASETA ERREGE KLUBA

## Maria Lopez de Eguiluzi, saria

**M**aria Lopez de Eguiluz Realeko hockey-atezain getxoztarrak eta Alvaro Negrete Jolasetako jokalaria kantabriarrak lortu dituzte Espainiako Hockey Federazioak eta Halcon Viajes bidaia-agentziak ematen dituzten sariak. Garaikurren bidez, 2014-2015 denboraldian ohorezko mailetan jardun zuten atezain eta jokalaririk onenak legez saritu dituzte. ◀

# Getxo Igeriketa, uretan suttsu

**G**etxo Igeriketa Waterpolo taldeko igerilariak ederto jardun dute urteko lehenengo bi hilabeteetako lehiaketetan. Euskal Herriko Neguko Gazte Txapelketetatik, 11 dominagaz itzuli ziren etxera Iruñetik: urrezko hiru, zilarrezko bost, eta brontzezko hirugaz.

Tolosan jokaturako Euskal Herriko Haur Txapelketan beste lau domina jantzi zituzten, urrezko bi eta brontzezko beste bi. Espainiako Txapelketan ere izan ziren getxoetar batzuk, Euskadiko selekzioagaz. Ez zuten dominarik lortu, baina Bizkaiko eta Euskadiko hainbat marka hautsi zituzten.

Boladaren azken txapelketa, Bizkaikoa, beste 23 metal batuz amaitu zuten. Galdakaoko kiroldegian, Getxoko igerilariak denbora-marka oso onak lortu zituzten, euren markak jaitziz. Hamabi domina norbanakoan izan ziren, eta beste 11, ordea, taldeko lana saritzeko.

Ane Ibarrondok urrezko domina bi lortu zituen Euskal Herriko gazte-

lehian, 50 eta 100 metroko tximeleta-probetan; zilarrezkoak ere distantzia berdinetan lortu zituen, baina estilo librean. Bizkaian errepikatu zuen urrezko emaitza, 50 metroko tximeletan. Itziar Tardaguila, ostera, hirugarrena izan zen Euskal Herriko Gazte Txapelketan, 200 metroko bular-igeriketan. Bizkaikoan, urrezkoa lortu zuen distantzia eta diziplina berean.

Magdalena Musons lehenengo postuan geratu zen Bizkaiko proban, 100, 200 eta 400 metro libreetan. Naia Ibarrondo ere nabarmendu zen Galdakaon, 200 eta 100 metroko tximeletan nagusituta. Espainian, Bizkaiko markarik onena hautsi zuen 200 metroko tximeletan; 02.24,27 denbora egin zuen, ezarritako muga segundo bi baino gehiago murriztuz. Gainera, 100 metroko tximeleta-proban, Bizkaiko eta Euskadiko markarik onena hautsi zuen, 01.03,68 denboragaz, Ane bere ahizpari errekorra kenduz. Norbanako dominak ere lortu dituzte gizonetakoek. Jon Alonsok brontzezkoa esku-



Getxo Igeriketa Waterpolo elkarteak Galdakaora eroandako taldea. © GETXO IGERIKETA WATERPOLO

ratu zuen Euskal Herrikoan, 800 metro libreetan. Bizkaian, berriz, urrezkoa jantzi zuen, 200 metroko estiloan. Halere, Galdakaon gizonezko igerilaririk onena Mikel Bildosola izan zen, lau dominagaz bueltatu baitzen etxera: 100 metro bizkar, estilo eta libreetan eta

50 metro libreetan. Azkenik, taldeko umeak ere oso ondo ibili ziren Tolosan. Yoel Panpinek urrezkoa lortu zuen 100 eta 200 metroko probetan; eta Maialen Lizarralde eta Gorka Bordegaray hirugarrenak izan ziren, hurrenez hurren, 200 eta 400 metroan. ◀



**Marcos Cesar Morales** Raspas Arraun Elkarteak arraunlaria (eskuman) munduko ergometroko txapeldun eta txapeldunorde berria da taldeka eta banaka, hurrenez hurren. Graham Bentonek (ondoan) irabazi zuen, Bostonen (AEB) jokatu zen Munduko Indoor Arraun Txapelketa. © RASPAS

## Iñaki Calle Marokoko VIII. Panda Raid lasterketan

**M**arokon da, egunotan, Iñaki Calle Hernandez getxoztarra, bertako VIII. Panda Raid auto klasikoaren orientazio-lasterketan. Pasa den zapatuan hasi zuen abentura, Madrilen. Algecirasetik pasatu ostean, Tangerren abiatu zuen ibilbidea. Fiat Panda Trekking 4x4 bat gidatzen du Callek, iaz erositakoa. Izan ere, Gaztelako Luis Alonso Manjon bere lagunagaz batera, pasa den urtean parte hartu gura zuen proba berezi horretan, baina belu ibili zen. Aurten biek eman dute izena garaiz, eta sei egunean Marokoko Atlas mendi-lerroa zeharkatu ostean, rallya Marrakexen amai-



tuko dute, datorren zapatuan. Proba amaitzearen ohoreaz gainera, bertako umeak laguntzeko poza ere ekarriko du bikoteak Afrikatik. Talde bakoitzak 20 kilo eskola-material eroan behar ditu parte hartu ahal izateko. ◀

info+: Pandaraid.com

### HIRUKAko kide izan gura duzu?

Bi aukera dituzu:

**1** Proiektuan barrutik parte hartzeko kooperatibako Bazkide eginez:

- BAZKIDE ERABILTZALE izanda:
- **Pertsona Juridikoak:** 1.000 € + Urteko kuota: 30 €
  - **Norbanakoak:** 100 € + Urteko kuota: 30 €

- BAZKIDE LAGUNTZAILE izanda:
- **Pertsona Juridikoak:** 200 € + Urteko kuota : 33 €
  - **Norbanakoak:** 50 € + Urteko kuota : 33 €

**2** Egitasmoa bultzatzeko ekarpena eginez:

- HIRUKA LAGUNA
- Urtero ekarpena eginez (gutxienez 35 €) proiektuaren bultzatzaile izango zara, hainbat onurez baliatuz.

- Bazkide Erabiltzalea**
- Bazkide Laguntzalea**

**Hiruka laguna**

- Urtean 35€
- Urtean \_\_\_\_\_ €

Izena  NA

Abizenak

Helbidea

Posta kodea  Herria

Herrialdea  Telefonoa

E-posta

Kontu korrante zenbakia

Bete ondorengo datuak eta bidali postaz hona: Martikoena 16, 2. solairua. 48992 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Personalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKA emandako datuak libxategi automatikoa batean sartuko dira, erabiltzaileekin harremanetan jartzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikitatea helarazteko. Datuak erabiltzeko informazio gehiago jakin nahi izateko, erabiltzaileak meara idatziz: hiruka@hiruka.eus

# Getxoztarrek 14 campus aukeran



Aurten ere gimnasia erritmikoko campusa egongo da. © GETXO GIMNASIA KLUBA

**S**aso honetan ohikoa denez, kirol-campusak eskainiko dituzte Getxo udalerriko dozena luze bat kirol-elkartek, Getxo Kirolak udal erakundearen laguntzagaz. Martxoaren 21a eta apirilaren 1a bitarteko Aste Santu honetan, hamalau izango dira campusak, honako modalitate hauetan: gimnasia erritmikoa, saskibaloia, igeriketa, tenisa, futbola, gurgil-lerroko irristaketa, surfa, bela, boleibola, jiu-jitsua eta defentsa pertsonala, atezaintzako entrenamendua, eta kirol anitzak. Campus bakoitzak badu bere adin-tartea, ordutegia, prezioa eta, kasu batzuetan, gonbidatu bereziak, Koikili Lertxundi esaterako. Ondoko zerrendan, klubak harremanetan ipintzeko moduak daude. Getxoko Udaleko Kirol Arloak gogora ekarri duenez, kirol-campusak eskolako opor-garaian antolatzen dira, udalerriko umeei aisialdirako aukera osasuntsuak eskaintzea eta gurasoei kontziliazioa erraztea helburu. ◀

**Gimnasia erritmikoa**  
685 545 032

**Saskibaloia**  
657 773 523 / getxosaski@gmail.com

**Igeriketa eta askotariko kirola**  
663 871 318 / getxoibke@gmail.com

**Tenisa eta askotariko kirola**  
685 751 688 / 609 400 742

**Futbola eta kirol anitza, Faduran**  
688 886 616 / 617 465 300

**Futbola, Gobelan**  
657 268 606 / efmromoarenas@gmail.com

**Atezain-prestaketa / kirol anitza**  
676 471 175 / unoy13@gmail.com

**Boleibola**  
654 738 779 / campus-voleigetxo@gmail.com

**Surfa**  
675 650 713 / macedagetxosurf@gmail.com

**Jiu-jitsua / defentsa pertsonala**  
648 629 265 / ridersfightclub@gmail.com

**Hastapen-bela**  
944 916 632 / info@pakeabizkaia.com

**Irristaketa**  
664 570 994

## Appa Athletic aplikazioa aurkeztu dute

**E**uskaltzaleen Topaguneko Kultur Kabia zerbitzuak eta Athletic Fundazioak klub zuri-gorriaren gaineko jolas bat aurkeztu dute. Athleticen historia, errekor eta anekdotak oinarri hartuta, Android eta IOS plataformetarako doako aplikazioa sortu dute. 200 galderako jolas baten bidez, euskararen erabilera indartzeko helburua dauka egitasmoak. 10 minutuko tartean, erabiltzaileak 25 galdera erantzun beharko ditu, eta hirutan huts egin edo denbora gaudituz gero, berriro hasi beharko du. Maiatzaren 15ean puntuazio altuena duten hiru parte-hartzaileek sariak jasoko dituzte. ◀

## Lopezek gidatuko ditu Leioako Emakumeak

**D**aborduko David Lopez da Leioako Emakumeak taldeko entrenatzaile berria. Lopezegaz batera, Ekaitz Duran izango da bigarren entrenatzailea, Leioa Kirol Elkartek pasa den astean jakinarazi zuenez. Klubak agurtu egin zuen pasa den udan fitxatu zuen teknikaria, Ekaitz Linaza. Liga abiatu zenetik hona jokaturako 18 partidetan, hamabi puntu besterik ez dute batu leioaztarrek, eta azken aurrekoak dira saillapenean, jaitsiera-postuetan. Azkenengo bost partidak galdu ditu taldeak. Lopez Bilboko Betolaza klubetik dator, eta aurretik Erandioko Kirol Elkartean jardun zuen. ◀

## Urdulizko Sabin Merino Campusa, Aste Santuan

**P**asa den Gabonetako campusaren arrakasta ikusita, Urduliz Futbol Taldeak Aste Santurako ere Sabin Merino Athleticen jokariaren omenezko campusa antolatu du. Klubak txanda bi ipini ditu: martxoaren 21etik 23ra eta martxoaren 29tik apirilaren 1era, biak ala biak goizeko 09:00etatik 14:00etara. Bertan, 2003 eta 2010 bitartean jaiotako neska-mutilek parte har dezakete.

Urdulizko Futbol Taldeak jakinarazi duenez, Aste Santuko opor berezi horietan umeek futbolari lotutako jardueraz gozatzeko aukera izango dute. Bidelagun izango dituzten jago-



© URDULIZ FUTBOL TALDEA

leek dagozkien titulua eta trebakuntza dauzkate. Gainera, campuseko egunen batean Sabin Merino umeengana hurbildu eta hainbat irakaspen eman go die, eurakaz jolasteaz gainera. Neska-mutilek oroigarri bana eroango dute etxera azken egunean. ◀

info+: [coordinador@urdulizft.com](mailto:coordinador@urdulizft.com) / 647 108 484

**aldai**  
Tapiztegia  
Dekorazioa  
Erakusketa  
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32  
48990 Algorta  
94 460 90 31

**Iñaki Bitxitegia**

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 Telletxe 1  
94 430 23 45 94 460 27 41  
Algorta

**Unai**  
Taberna · Jatetxea

Algortako Etorbidea, 96. 48991 Getxo  
94 466 16 61 · tabernaunai@hotmail.com

**portu zaharra bar**

Portu Zaharra kalea 23  
48901 Algorta-Getxo  
Tf. 94 468 20 33  
[portuzaharra@portuzaharra.com](mailto:portuzaharra@portuzaharra.com)  
[www.portuzaharra.com](http://www.portuzaharra.com)

Jarrai gaitzazu:

[f](https://www.facebook.com/hirukaEus) [t](https://twitter.com/hirukaEus)

hirukaEus @hirukaEus

[www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)

## Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



Musiketan zikloa

## Abalone Doots-en

**kontzerturako  
5 sarrera bikoitz  
ditugu, Producciones  
Serranoren ekimenez.**

Martxoak 20, domeka,  
20:00;  
BBK Aretoa (Bilbo)

**Martxoaren 16a baino  
lehenago**, helarazi erantzuna,  
zure izen-deiturak eta  
harremanetarako bide bat hona:  
hiruka@hiruka.eus  
edo 944 911 337

## Zorion agurrak 5€

Urtebetetze,  
ezkontza zein  
jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus  
94 491 13 37



**ARKI**  
ITZURBALTZETA/  
ROMO  
*Kuadrillaren  
partez*

Pentsatzen zenuen zorion-agurrik ez genizula jarriko?! Kar, kar. Egunean bertan zoriondu zintugun arren, holako bat merezi duzu. Zorionak!!!



**TINA**  
ALGORTA  
*Zugandik sortu  
garenok*

Zorionak amatu!!! Gero eta urte gehiago eta orduan eta politago aurkitzen zaitugu!! Muxu pilo bat guztion partez... segi horrela!!



**MARIA**  
GETXO  
*Amsterdametik*

ZORIONAK MARIA! Batera ez egon arren zutaz oroitzen naiz egunero! Gozatu zure egunaz eta ez utzi inoiz kantatzeari! Muxurik beroena!

## Sudokua

2							9	7
4								
	6		3	7				
	4			6	1			8
		9					4	3
					9			
		1						9
				1	7			
8				2		3	6	

Gogoan hartu 1etik gra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

## Soluzioa

1	9	3	5	2	6	4	7	8
8	7	5	7	1	9	2	6	3
6	7	2	3	4	8	1	5	9
2	1	7	6	3	4	9	8	5
9	3	4	8	5	7	6	2	1
5	8	6	1	9	2	3	4	7
4	5	1	2	7	3	8	9	6
3	2	8	9	6	5	7	1	4
7	6	9	4	8	1	5	3	2

## Horoskopoa



**Ura**  
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Zuk kontrakoa pentsatu arren, ez zara benetan hain burugogorra. Halere, badirudi besteak zure irizien aurka agertzeko tematuta daudela.



**Otsoa**  
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Errutinatik ateratzeko hunkituko zaituen pizgarriren bat topatu beharko zenuke. Horrela eginez gero, bizitza askoz interesgarriagoa izango duzu.



**Adarra**  
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Zure urtebetetze garaian, beti, arazoak izaten dituzu zer eskatu ez dakizulako. Espero dezagun aurrekontu berean erori ez izana.



**Aitzurra**  
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Bakardade apur bat beharko duzu benetan zer gura duzun jakin ahal izateko. Bestela, zarataz inguratuta, nekez entzungo duzu zure barrua.



**Hostoa**  
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Jende askori depresioa etortzen zaio udagoiengaz batera, hostoak jausten diren garaian. Zure kasua arraroa da, udaberriak ipintzen baitzaitu triste.



**Eguzkia**  
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Zure eraikineko mar-marren eta txutxu-mutxuen sortzailea zara; *Cantera Deportiva*-k baino emaitza gehiago ematen dituzu. Kazetaria zara?



**Garia**  
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Ilean zenbat kolore ipini dizkizuten badakizu? Halere, moderno baino modernoago zabilta orain kaltetik. Ez kezkatu!



**Lastoa**  
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Inoiz ez duzu soberakorik izan, baina horrela ere, ez duzu ezer faltan sumatu. Gogoko lagunak gustura zabilta. Hori bada zoriontsu izatea!



**Iratzea**  
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Bizimodua aldatu zaizula esan duzu behin baino gehiagotan, baina, egia esanda, oraindik ez da ezer ere jazo.



**Meta**  
(Irailak 17-Urriak 16)

Batzuetan pentsamendua apur bat atzeratuta daukazu, pasa den mendean jaio izan bazina moduan. Ahalegindu zaitetz modernoago izaten!



**Hazia**  
(Urriak 17-Azaroak 15)

Egun osoa ematen duzu aurikularrak belarrietan sartuta. Horrela zelan entzungo duzu zugaz berba egin gura duen jendea? Ipini arreta!



**Negua**  
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Iturgina, pintorea, igeltseroa, arotza, argiketaria... noiz erabaki zenuen zure etxeko egongela zegoen lekuan gremioen bulego bat ipintzea?



# Bederatziko FUTBOLA

## Haur-futbolearen nesken maila hobetzeko iraultza

**Bizkaiko nesken haur-futbolari** ate berriak zabaldu dizkiote. Ikerketa metodologiko biren ostean, beste sistema bat sortu dute neskentzat, zelaiaren neurria eta jokalarikopurua egokituta.



IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

**I**raultza gertatu da nesken haur-kategoriako futbolearen. Pasa den otsailaren 13an, Bizkaiko nesken haur-kategoriako lau multzoak berregituratu zituzten; zazpiko futbolearen segitu zuten hiru multzok: Plentzia, Betiko Neskak, Bizkerre C eta beste 20 taldek. Bederatziko futbolearen hasi zen beste multzo bat, eta hiru klubek bost taldek sistema berriari ekin zioten, futbol-zelai bitan. Protagonistak uribekostarrak dira, batez ere: Leioako Emakumeak, eta Bizkerre klubeko talde bi. Horiekaz batera, Barakaldoko Pauldarrak elkarteko talde bik jokatzen dute. Liga horretako egoitzak Leioako Sarriena eta Algortako Bolue futbol-zelaiak dira. Lehenengoan, ohi den legez, Leioako Emakumeak taldea dabil. Bestean, etxeko partida denak jokatzen dituzte beste lau taldeek; Ezkerraldeko futbolariei Bolue erabiltzeko baimena eman baitie Getxoko Udalak.

Ane Etxebarria Maguregi Leioako Emakumeak taldeko koordinatzailearen ustez, «neskak, gure taldekoak behintzat, oso pozik» daude sistema berriagaz. Hala ere, hastapena ez da erraza izan: «agian, hasieran, bost talde bakarrik geundela ikusi genuenean, ez zuten ikusi hain ondo, edo ez zitzairen hainbeste gustatu. Baina, jolasten hasi direnetik, ederto disfrutatu dabilta. Asko gustatzen zaie».

Hein handi batean, poz horren giltza dira zelaiaren neurria eta jokalarikopurua. Izan ere, orain arte, neskek zazpiko futboleko neurrien barruan jokatu behar zuten. Sistema horretan, zelaiak 50 eta 65 metro bitartean ditu alboko lineak, eta 30 eta 45 metro bitartean

ateko marran. Aldiz, hamaikako futbolearen erabiltzen den zelai arruntean jokatzen da bederatziko futbola. Hala, 33 metro laburragoa da zelaia; alboetan 57 eta 87 metroko bitartea dago, baina atekak ohiko 45 eta 90 metro bitarteko zabalera du. Zelaia zabalagoa izanda, jokalariek joko tekniko-taktiko hobea egiteko aukera dute, eta ateen arteko distantzia laburragoa denez,

**Zelaia luzeagoa eta ateen arteko distantzia laburragoa denez, joko hobea dute eta gol aukera gehiago dituzte jokalariek**

gol aukera gehiago sortu ohi da. Horrek eragina handia izan du jokalarien trebezietan eta motibazioan. «Guk ikusi dugu, eta gurasoek ere bai. Denboraldi hasieran, lehenengo fasean, zazpiko futbolearen hasi ginen, urtarrilera arte; gero, bederatzikoan. Eta aldaketa handia nabaritzen da, onera. Zazpiko futbolearen, ahalegintzen ziren hainbat mugimendu egiten, baina batzuk ez zitzaizkien ateratzen, zelaia txiki gelditzen baitzitzairen batzuei» dio Etxebarriak pozik. «Orain, zazpiko futbolearen ikusi ez ditugun gauzak ikusten gabilta», gaineratu du Leioako koordinatzaileak.

Xabier Arrieta Bizkerreko koordinatzailea ere maieminduta dago bederatziko futbolagaz, fase berriko lau jardunaldiren ostean. Eta ez da sailkapen nagusiaren emaitzengatik, bere klubeko talde bat azken pos-

tuan dagoelako, eta, bestea, hirugarrenean. Ligaren buru Mendi Hotza eta Pauldarrak barakaldarrak dabilta, eta Leioako Emakumeak laugarren doa. Arrietak gehiago begiratzen dio sistema berriak futbolarien motibazioari eta jokoari egiten dien ekarpenari: «jokalariek inoiz baino hobeto daude. Egia esanda uste dut erabat asmatu dela bederatziko futbolagaz. Bederatziko futbola, bederatziko futbolearen ostean, eta Maddi Torre edo Garazi Murua bezalako jokalariek izan ditut txikiak zirenean. Haur-kategorian ikusten nituen horiek eta beste asko, eta hauxe zen beti nire kezka: zelaia txiki geratzen zitzairen. Oraingo neskek, berriz, bederatziko futbolearen jolasten ikusten ditut, eta hobeto pasatzen dute, jokoa erreala delako; espazioa dute, eta gehiago ikasten dute. Zazpiko futboleko zelaia daborduko ez da haintzat neurri zuzena, adin horregaz», dio Bizkerrekoak. Teknikariak errazago ikusten du bere lana neurri berriakaz: «haiek ondo pasatzeaz gainera, gauza gehiago jar ditzaket praktikan, zelaiak horrelakoak bermatzen dituelako, eta jokalarien progresioa ere handiago delako». Koordinatzaile algortarrak berba onak baino ez ditu bederatziko futbolarako, «asmatu egin delako», «pozez zorutzen» dabil; «progresio egokiena zazpiko futbola, bederatzikoa eta hamaikakoa da», ebatzi du. Hala ere, Bizkerren denak ez dira hain fededunak izan hasieratik, «guraso asko hasieran galdezka etorri zitzaidan ea bederatziko futbola ez zen handiegi alabentzat; lau jardunaldiren ostean, Bizkerrek bertan dituen bi taldeen guraso denek gauza bera esaten dute: poz-pozik daudela eta beste kontu bat dela».

Bederatziko futbolaren «asmakizuna» ez da hutsetik sortu. Azken urte biotan egindako ikerketa biren emaitza da, eta emakumezkoen futbola hobetzearen alde aliantza zabalaren babesa izan du. Puzzlea osatzeko ezinbesteko piezak izan dira Bizkaiko Foru Aldundia, Kimet Sport SL kirol-metodologian dihar-



Ezkerreko orrialdean, Bizkerre C eta Plentziaren arteko derbia; talde biek zazpiko futboleko jarraitu dute bigarren fasean.  
© BIZKERRE

Goian, urdinez, Erandioko Betiko Neskak zazpiko futboleko ere dabilta gaur egun.  
© SANTURTZIKO PEÑA ATHLETIC

Goian, eskuman, Bizkerre Bko jokalariek aurre egiten dio Santurtziko arerio bati; Bizkoneskak taldeak bederatziko futbolari ekin dio.  
© SANTURTZIKO PEÑA ATHLETIC

Eskuman, Leioako Emakumeak taldearen haurrak; orain Sarrirenako futbol-zelai handian dabilta.  
© LEIOAKO EMAKUMEAK



duen aholkularitza-enpresa getxoztarra, Athletic Fundazioa, Bizkaiko Futbol Federazioa eta emakumezko taldeak dituzten zazpi klub hauek: Bizkerre, Leioako Emakumeak, Betiko Neskak, Basconia, Berriotxo, Pauldarrak eta Santurtziko Peña Athletic.

### Diagnostikoaren garrantzia

Aitzindariak izan ziren Bizkerrekoak. Orain dela urte bi, «etxean egindako ikerketa xumea» burutu zuten algortarrek. Zazpiko futboleko zelaia jokalariei labor geratzen zitzaielakoan, beste formularen bat topatu gura zuten. Horrela, «haur-kategoriako azken urtekoak grabatu genituen bost partidatan», akordura ekarri du Arrietak. Makina bat datu zenbatu, apuntatu eta multzokatu zituzten: «jokalariek bakoitzak partidako une guztietan egindako ekintza fisiko eta tekniko denak; hortik batez bestekoak ateratzen genituen; inurri-lana izan zen, zoramen hutsa! Baina, klubaren ahalmen urriakaz bada ere, ikerketa osatu egin genuen». Eta txosten hori besapean, Aldundiaren atea jo zuten 2014ko maiatzean. «Esan genien nesken haur-kategorian zazpiko futbolariek gabeziak sortzen zitzaizkela maila oneko jokalariei, zelaia labor geratzen zitzaielako. Ez zituzten futboleko ekintza tekniko-taktiko asko aurrez aurre izaten, zelaia nanoa zelako neska erraldoientzat». Bizkerrekoen arabera, neska horiek kadeteak izatera heltzen zirenean, ez zeuzkaten ekintza horiek barneratuta, nahiz eta entrenamenduetan eza gutu, «joko errealean ez zirelako gertatzen». Hasieran, Aldundiak «erreparoa ipini zituen» zazpiko futboleko eta hamaikako futboleko sistematan aldaketak sartzeko, «baina guk ez genuen ikusten gure haur-jokalariek zazpiko futboleko jolastea, eta hamaikako futboleko gura genituen», Arrietak gogoratu duenez. Baina, ez zegoen nesken haur-talderik hamaikako futboleko jokatzeko. Azkenean, iaz Aldundiak Bizkerreko programa-pilotu bat egitea onartu zion, «eta utzi

zizun hamaikako futboleko jokatzeko mutilen ligan, adin bereko mutikoen aurka, eta esperientzia oso positiboa izan zen». Bizkerreko neskek «mutil gehienak baino hobekak ziren, teknikoki». Izan ere B multzoan mutilen taldeek «formazio-maila apalagoa zuten».

Bizkerre programa-pilotu horretan zebilela, Bizkaiko Foru Aldundiak erabaki zuen ikerketa sakonago eta zehatzago baten beharra zeukala, gaia sendo jorratu gura bazuen. Txostena prestatzeko, kirol-metodologia alorrean diharduen Kimet Sport SL aholkularitza-enpresa getxoztarra aukeratu zuen Aldundiak. Kimet Sport nazioartean dabil entrenatzaileak trebatzen, Amerikako Estatu Batuetan, Norvegiar, Boliviar, Arabiar Emirerri Batuetan, edo Espainian, bes-

### Erandioko Betiko Neskak klubak ez du lortu Udalak inbertsioa bere gain hartzea; bederatziko futboleko jokatu barik geratu da

teak beste. Gainera, futbol-planifikaziorako *Planning* aplikazio informatikoa egin du Kimetek. Enpresa getxoztarrak 2015eko urtariletik uztaile bitartean egin zuen ikerketa, Lezaman eta Sarrirenan. Gari Fullaondo azterketaren arduradunak ondo gogoan dauka garai hura: «jokalariek, klubek eta Aldundiak primerako harrera egin ziguten. Hainbat kategoriatan egin genuen deia, eta klubek kategoria horietan guztietan neska zituzten; erantzuna oso ona izan zen guztien aldetik. Eurentzat ere berria pozgarria zen. Normalean emakumezko futbolaren inguruan oso gutxi egin izan da, eta eurentzat kontu polita zen. Ikerketa ondo joan zen, euren aldetik, gure aldetik, baita Aldundia eta Federazioaren aldetik ere. Athleticek kristoren laguntza eman zigun». Hilabete haietan, 100 jokalariek

baino gehiago ibili ziren egindako probetan, norbanako zein taldekako probak izan ziren, eta futboleko jokatzeko. GPSak, pultsometroak eta bideo-grabazioak erabili zituzten, paseen, kontrol-mailaren, driblinen, jaurtiketen, defentsa-ekimenen, golen, gol-saiakeren, posesio-denboren eta bestelako aldagaien eta trebetasunen datuak batzeko.

Emaitzen artean, argi ageri zen teknikari eta taktikari dagokienez, bederatziko futboleko jokalariek kontrol gehiago zutelako haur-kategoriako jokalariek, eta kalitate hobegaz egiten zutelako. Beste emaitza nabarmen batzuk honakoak ziren: klubek ikerketarekiko hartutako interesa, «oso ondo altuagaz» baloratu izana, eta horren inguruan eraikitako elkarlana. Baina proposamen garrantzitsuena lehiaketaren egitura aldatzea izan zen. Besteak beste, Kimet Sportek haur-kategoriako ligarako multzo bi proposatu zituen: A eta B. Lehenengo multzoan, teknika hobea zuten taldeak egongo lirarteke, eta lehiaketa bederatziko futboleko egingo lukete. Bigarren multzoak, berriz, maila apalago formakuntza duten taldeak batuko lituzke, eta zazpiko futboleko jokatzeko lukete orain arte legez; maila horretako jokalariek zelai horretan hobeto dabilzala diolako egindako ikerketak. Ateen ezagutza eta baloiaren neurria aztertzea eta ikerketari jarraipena ematea ere gomendatu zituzten, baita gazte- eta kadete-kategoriak batzea ere. Xabier Arrietaren berbetan, «Gari Fullaondoren lana izugarria izan da; berak atera du aurrera hau dena».

Aldundiak iazko uztailean 11n batu zituen klubak, Federazioa, Athletic eta Kimet Sport, eta ikerketaren emaitzen berri eman zien. A eta B ligen funtzionamendua datorren 2016-2017 denboraldirako utzi zituen Aldundiak, eta aurtengoan fase bi proposatu zituen, urtarilerako zazpiko futboleko, eta otsailetik aurrera talde bakoitzaren arabera, zazpiko futboleko ala bederatzikoan. Xabier Arrietak duen kexa bakarra da Bizkaiko Futbol Federazioak «ez duela nahiko babes-tu liga berria». Bere ustez, «talde asko animatuko dira parte hartzen, batez ere zelan gabiltzan ikusita, baina hasieran ezagupen falta egon da; zazpiko futboleko ate mugikorrek ipini beharra dago, kontrapisuak, zelaiko marra berriak... Gu akuriak izan gara». Arrietak eskertuta dago oso Getxoko Udalgaz. Aurretik bazituzten Boluen ate mugikorrek, baina kontrapisuez eta zelaiko marrez Udala arduratu da, inbertsio dena egin du: «Gorka Zabalar, Jose Ignacio Hermosillari eta Alvaro Gonzalez Kirol zinegotziari eskertu behar diet dena, gugaz *chapeau* portatu direlako!». Gogoratu du Udalak «betidanik mimatu» duela Bizkerreko emakumezkoen arloa. Ane Etxebarria ere pozik dago Leioako Udalak, Leioa Kirol Elkarteak eta instalazioetako beharrik emandako «laguntza handiagatik».

Beste aldean dago Iñaki Fernandez Izagirre Erandioko Betiko Neskak klubaren koordinatzailea. Euren ez dute lortu Udalak inbertsioa bere gain hartzea. Bederatziko futboleko jokatu barik geratu dira aurretik: «aukera egokiena zela uste genuen, baina arinegi egin dela uste dut. Uda ia pasatuta eskaini ziguten, baina Udalera jo genuen San Lorentzo zelaia egoki zezaten eskatzera. Ezetz esan zigutenez, ez nuen gehiago begiratu, baina inbertsioa da, ate bakoitzak 1.500 eurotik gora balio dezake». Dena den, Fernandezek ez du amore eman, eta espero du azkenean Udalak edo Aldundiak arazo hori konpontzen laguntzea. Dena den, argi dauka San Lorentzo egokitu ezean, aukera hori galduko dutela: «guk bederatziko futboleko jokatu gura dugu, baina gure zelaia bederatziko futbolarako jokatzeko prestatuta egonda. Ez duguna gura da horretara sartu, eta partida denak kanpoan jokatu behar izatea». ◀

Sukaldean

## Hegaluze pikantedun sandwich misto tradizionala



### OSAGIAK:

Urdaiazpiko egosia, arrautza, gazta, moldeko ogia, hegaluzea, ketchupa eta tabaskoa.

### TXIBERRI EDAN-TOKIA

Aita Gotzon, 4 - 48610 Urduliz  
Tel.: 946 760 715

Urdulizera abiatu gara oraingoan, Aita Gotzon kalean dagoen Txiberri edanlekura, hain zuzen ere. Etxeko garagardoak eta txakolina maite dituztenentzat ez eze, kirolzaleentzat ere egundoko lekua da Txiberri. Izan ere, Athleticen partida guztiak bi metroko pantaila handian ikusi ahal izateaz gainera, euren frontoian pilotan egiteko aukera dagoelako, besteak beste. Hala, kirol apurra egin ostean, indarrak berreskuratzeko pintxo betetako barra izan ohi du tabernak, prezio merkean: 1,10 euroan. Era berean, mota askotariko ogitartekoak ere eskaintzen dituzte bertan, 3,50 eta 4,50 euro artean. Hala ere, oraingo honetan pintxo batez nahikoa izango dugu; tabernarien arabera, gehien

saltzen denetariko bat aukeratu dugu: urdaiazpiko eta hegaluzedun sandwich pikantea. Ogitarteko hori egiteko, lehenengo eta behin, arrautza egosi, eta hegaluzea ketchup eta tabaskoagaz nahastu beharko dugu, eta gero albo batean utziko dugu. Ostean, pernil egosia, gazta eta aurretik egosi dugun arrautza moldeko ogi zati biren artean ipiniko dugu. Jarraian, sandwicha itxi eta txigortuko dugu, misto tradizionala egingo bagenu legez. Horren ostean, zati bitan banatu, eta horietako bakoitzari aurretik prestatutako hegaluze pikantea gehituko diogu. Hori egin ostean, derrigorrezko zotza sartu, eta prest izango dugu aste honetako mokadua: ohiko mistoa, baina hegaluze pikanteagaz. Erraza, ezta? Eta gozo-gozoa! ◀

## faceguk



Zer uste duzu egin beharko luketela usoak gutxiago ugaltzeko?

### MIKEL ANGEL MONASTERIO

URDULIZ



Niri usoek ez didate trabarik egiten. Beste batzuek molestetzen naute; txakurrek, adibidez. Horiek ez lituzkete tabernetan sartu behar. Baina usoek ez dute molestetzen; utz ditzatela bakean.

### LUIS ZULAIKA

BARRIKA



Kontrolatu beharko lukete dabilen usoen kopurua, bestela izurrite bihur liteke. Badira espezializatutako enpresak «aire-arratoientzat». Janaria ematea debekatu, eta desagerrarazi beharko liriteke.

### TERE AYUSO

PLENTZIA



Ez dakit asko horretaz: hemen jaio arren, herritik kanpo ibiltzen nai zelako, baina argi daukat: usoak kopuru handian badabiltza, kaltegarria da hemengo etxeetako teiatuetarako.

### KERMAN ROTAETXE ETXEBARRIA

BARRIKA



Usoak kontrolatzeko beharra dago; hori argi dago. Bilbon ikusita daukat kutxa bat erabiltzen dutela: zabaldu eta sarean hartzen dituzte usoak. Gero, uste dut aukeraketa egingo dutela. Sistema ona dirudi.

### NEREA GARAI

PLENTZIA



Niri usoek ez didate trabarik sortzen. Entzun dut kaka nongura egiten dutela, baina hori ez zait arazo handia iruditzen. Haiek zikindutakoa garbi dezakegu, eta kito! Ez da hainbesterako.

### AINHOA IBARZABAL ZARRAGA

PLENTZIA



Entzun dut Plentziako Udala dabilena usoei janaria ipintzen, eta gero sarean bat bota, eta harraipatzen dituztela. Ez dakit ondo ala txarto dagoen, ez dakit-eta hala-koetan zer egiten den...

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua